


JEKYLL DK.
ETA
HYDE JN.



R.L. STEVENSON

© Marjinalia Bilduma
2. edizio zuzendua eta hobetua
Itzultzailea: Xabier Galarreta
Zuzentzaileak: I.I. eta X.G.
Lege-Gordailua: SS-426/02

ATEAREN ISTORIOA

Utterson Jn., abokatua berau, irri batek sekula argitzen ez zion begitarte garratzekoa zen, ikaragaitza, hitz gutxikoa eta mintzoan zuhurra, sentimenduaren adierazpidean trakets, zimel, luze, zakar eta betiluna, eta hala ere, denen gogoia beretzen zuen. Lagunen bileretan eta ardoa gustoko zitzaionean, oso-oso gizatiarra zen zerbait zerion begietatik. Hitzetan islatzeko gai izan ez arren, zerbait honek, bazkalondoko begitartearen ikur mutuen bidez ez ezik, eguneroko ekintzen bitartez ere mintzo zitzaion gero eta altuago eta sarriago. Estu hartzen zuen bere burua. Bakarrik zegoenean, ginebra edaten zuen ardo zaharrari zion zaletasuna zigortzearren, eta antzerkia gogoko bazitzaion ere, azken hogeitertan ez zuen halako areto bakar baten harlaxarik zeharkatu. Lagun hurkoarekiko, ordea, egonarri amaigabekoa zen. Batzuetan gogoetak egiten zituen ekintza gaitzoek eskatzen duten ausartasunari buruz, eta aukeran, nahiago zuen laguntzea gaitzestea baino. "Ez nauk maiseoan aritzen Kainen heresiaz" esan ohi zuen zorrotz. "Nik lagun-hurkoari beti uzten zioat bere burua gogoko duen moduan hondatzen".

Nolakoa zen ikusita, ohorezko azken adiskidea izatea zeukan patu, galbidean murgildutako pertsonen bizitzetan azken eragin on; eta bera sarritan ikusten jarraitzen zuten bitartean,

ez zuen bat ere aldatzen egoera horretan zeudenekiko jokaera.

Noski, halako moduz jokatzeari ez omen zitzaion oso zaila gertatzen Utterson Jn.ari —eta hori kasurik hoberenean—, hitz gutxiko gizona baitzen; eta adiskidetasuna, ontasunaren eta ez besteren pareko zen tolerantzian oinarritzen zuelako. Gizabidez jokatzeko dakien pertsonak patuaren eskuek eskaintzen dioten laguntaldea onartu besterik ezin du egin, eta ildo horretatik zihoan gure abokatuaren pentsaera. Pertsonenganako begikotasuna —huntzaren antzera— denboraren poderioz hazten zitzaion, nahiz eta begikotasun hori pertsona begikoaren izaeraren araberakoa ez izan. Mota horretakoak ziren, dudarik gabe, senidetzat zeukan eta hirian oso ezaguna zen Richard Enfield Jn.arekin zituen lokarriak. Askok galdetzen zioten euren buruari zer ote zekusaten batak bestearengan eta zer ote zeukaten amankomunean. Igandeko ibilalditxoetan haiekin suertatzen zen edonork baieztatzen zuen ez ziotela ezta hitz bakar bat ere esaten elkarri, oso-oso aspertuta ziruditela eta edozein lagunena azalpena ageriko atseginez hartzen zutelako. Hala eta guztiz ere, estimu handitan zituzten txango haiek, asteko momenturik onenentzat jotzen zituztelarik; eta horietaz etenaldirik gabe gozatu ahal izateko, jolas-aukerak baztertu ez ezik, lan-obligazioei ere aurre egiteko gauza ziren.

Ibilaldi horietariko batean, merkatu auzoetako kalekka batera agertzea suertatu zitzairen bi lagunei. Itxuraz bide lasaia bazen ere, lanegunetan saltoki loretsu ugari hartzen zuten aterpe hantxe. Zirudenez, hango biztanleak merkatari dohatsuak ziren eta elkarrekin norgehiagoka aritzen ziren, bizimodua hobegotzeko grinak harrapatuta, irabazien soberakina edergarri eta apainkerietan erabiltzen zutelarik; hori dela eta, kalearen alde banatan lerrokaturiko erakustokiek itxura ezin liluragarriagoa ematen zuten beti, aurpegi argiko emakume saltzaileen lerro pare osatuz. Igandetan ere, kaleak, bere lilurarik zoragarrienak ezkututzen zituen eguna izan arren, eta oso ibilia ez bazen ere, dirdir zegien auzo ilunaren alde hartan, baso goibelean suak dirdir dagien bezala; kontraleiho pintatuberriek, brontze ezin txukunagoek eta ezaugarritzat zeukan garbitasunak eta alaitasunak oinezkoen begirada bildu eta jostaraziz.

Izkina batetik bi etxaldetara, ekialdeko norabidea hartu eta ezkerreko galtzadan, patio baten sarrerak erakustoki lerroa eragozten zuen, eta toki honetxetan hain zuzen eraikin goibel batek bere hegaztegia proiektatzen zuen kale gainetik. Bi oinetakoa zen eta ez zuen leihorik. Beheko oinean ate bat eta goiko partean hormaurre itsu eta goibela besterik ez zeukan. Xehetasun bakoitzean halako baldarkeria zikin eta luzatu bat antzematen zitzaion. Ateak, txilinarik eta mailukorik gabe, margoa erazuta eta kolorgetuta zeukan. Arloteek

aterpe bilatzen zuten horren babespean eta poxpoluak pizten zituzten ate azalaren aurka; hurrek dendak jartzen zituzten harmailetan; eskola-ume batek labanaren ahoa kosketan probaturik zeukan; eta, zirudienez, ia belaunaldi batean inor ez zen parte txarreko bisitari horiek uxatzeaz arduratu, ezta etxeari egindako kalteak konpontzeaz ere.

Enfield Jn. eta abokatua aurrealdeko galtzadatik ibili arren, aipatutako sarbidera iritsi zirenean, lehenak makila jasoz harantz seinalatu zuen.

—Noizbait erreparatu al diok ate honi? — galde egin zion. Eta adiskideak baietz erantzun zionean, aurrera jarraitu zuen—. Beti zekarkidak gogora gertaera bitxi bat.

—Benetan? —esan zuen Utterson Jn.ak ahotsa apur bat aldatuz—. Zein?

—Begira, horra zer gertatu zen —jarraitu zuen Enfield jn.ak—. Behin banentorrean oinez, ez zekiat urrutiko zein tokitatik, neguko goizaldeko hirurak aldean. Eta harturik neukan bideak hiriko auzo bat zehartzera behartu ninduan; auzo horrek begiari eskaintzen zion gauza bakarra pizturiko kaleargiak baino ez zituan. Hamaika kale zeharkatu nian, jendea lotan zegoela, kaleak desfile baterako bezala argituta eta eliz barnea bezain hutsik. Halako egoera batean dagoen gizona zazpi belarri

zebilek eta poliziaren bat noiz ikusiko irrikan hasten duk. Halako batean, bi giza irudi ikusi nizkian; bata, ekialderantz zihoan gizonkote batena; eta bestea, arrapaladan eta ziztu bizian kale zulo batetik korrika zihoan zazpi edo zortzi urteko neskato batena. Noski, asmatzekoa denez, kantoira iritsita neskak eta gizonak elkar jo ziaten eta... segituan zetorrek kontakizunaren alderik izugarriena: gizonak lasai-lasai neskatoaren gorputza zapaldu eta aurrera segitu zian, neskatoaren garrasiei jaramonik egin gabe, hura lurrean botata utziz. Kontatuta ez zaik gauza handirik irudituko, apika, baina ikuspena izugarria izan zuan. Gizon hark ez zirudian gizakia, *juggernaut* izugarria baizik. Dei egin nioan; lasterka joan nintzaioan atzetik; lepotik gogor heldu eta neskatoaren inguruan jendea biltzen hasitako lekura itzularazi nian. Gizona oso lasai zegoan eta ez zidaan aurre egin, baina hain begirada zitala bota zidaan ezen bekokia izerdiz blai utzi ninduen berriro ere —lasterka zihoanean bezala—. Inguruan bildutakoak biktimaren senitartekoak zituan eta laster osagilea agertu zuan, neskatoa haretxen bila joana baitzen, hain zuzen. Petrikiloaren ustez, neskatoak zeukan min bakarra hartutako ikaraldia baino ez zuan izan, eta pentsa dezakeanez, kontua honelaxe amaitu zela uste izango duk. Gauza zinez bitxia gertatu zuan ordea. Ikusi nuen lehen momentutik gizon hark nazka izugarria eman zidaan, eta beste horrenbeste gertatu zitzaiean, noski, neskatoaren senitartekoei. Gehienik harritu ninduen, ordea, osagilearen jarrera izan zuan.

Berari dagokionez, ohiko galenotzat jo genezakean. Adin eta itxura zehazgabeko gizona alegia, Edinburgh-eko hizkera zerabilena eta zurezko aulkia bezain sentikorra. Hala ere, guri bezala gertatu zitzaioan berari ere. Nire atxilotuari begiratzeak gaixotu egiten zian, eta hantxe bertan hura garbitzeko grinak zurbildu. Elkarri igarri genioan bakoitzaren burutik igarotako pentsamendua, baina hura hiltzea zilegi ez zitzaigunez, ahal genuen guztia egin genian geure asmoei eusteko, orduko egoera kontuan hartuta. Gizonari esan genioan bere *balentriaren* berri zabalduko genukeela. Londres osoak, bazter batetik bestera, bere izena madarikatuko lukeela, eta adiskiderik edota osperik izatekotan, dudarik gabe galduko lukeela. Eta modu horretan agirika egiten genion bitartean, harpiak bezala haren aurka oldartzeko gertu zeuden emakumeak urrunarazten saiatzen gintuan. Ez diat sekula ikusi gorrotoak piztutako halako aurpegi-talderik. Eta erdi-erdian, hoztasun beltz eta erdeinuzko hartaz jantzitako gizontxo hura, bera ere —nabari zitzaioan— beldurrez, baina ekaitza saihestuz, Satan bera balitz bezala.

"Istripu honetaz baliatu nahi baduzue", esan zigun, "zuen menpean naukazue, noski. Edozein jaun gizabidetsu saiatuko litzateke eskandalua sahiesten. Esaidazue zenbat nahi duzuen". Beraz, nekatu arte tratutan aritu eta ehun libera gutxienez eskatu genioan neskatoaren senitartekoentzat. Alde egin nahi zuela agerian bazegoen ere, gure jarrerak

beldurra sartu zioan eta azkenik amore eman ziguan. Dirua lortzea besterik ez zuan falta, eta... ba al dakik nora gidatu gintuen? Ateko eraikin horretaraxe, hain zuzen. Giltzaz atea ireki, barruan sartu eta berehala atera zuan berriro, urretan hamar libera zekartzala eta taloi bat gainerako diru kopuruaren truke, eramalearen izenean. Cutt banketxearena eta oroitu ezin dudan izen-abizen batez sinatua, azken hau nire kontakizunaren zatirik interesgarriena bada ere. Esango diat, ordea, oso izen ezaguna zela eta egunkarietan askotan agertzen dela. Diru-zenbateko handia zuan, baina taloian jarri zuen sinadura, egiazkoa izanez gero, aberastasun handiko gizona izan behar zian. Zilegi iruditu zitzaidan gizon hari esatea guztiura susmagarria iruditzen zitzaidala eta benetako bizitzan gizon bat ere ez dela goizeko lauretan sartzan hura bezalako kobazulo batean, segituan ateratzeko beste pertsona baten izenean izenpeturiko ehun mila pezetako taloia eskuan ekarriz. Berak, ordea, hotz eta erdeinari jokatu zuen.

"Ez kezkatu", esan zidan, "zuekin geratuko naiz banketxeak ireki arte eta nik neuk kobratuko dut dirua". Hortaz, denok abiatu ginen: neskatoaren aita, sendagilea, gure *laguna* eta laurok. Gainerako gaua nirea pasatu eta biharamunean, gosaria hartu eta banketxera joan ginen denok elkarrekin. Nik neuk eman nion taloia banketxeko enplegatuari eta faltsua zela sinesteko arrazoi onak neuzkala eman

nioan aditzera. Ez, ba; inola ere ez. Sinadura legezkoa zen.

—Sinestezina, hi! —hots egin zuen Utterson Jn.ak.

—Ikusten dudanez, hik ere pentsatzen duk nik bezala —esan zuen Enfield Jn.ak—. Bai, kontua ez duk bat ere atsegina, mintzagai daukagun gizona guztiz higuigarria baitzen, benetako txori galdua. Bestalde, taloia izenpetu zuen pertsona birtute handikoa duk, oso gizon ospetsua duk; areago, bere on-eginak direla eta, itzal handiko gizona duk. Xantaia-kontua, oker ez banago. Gaztaroan egindako zerbaitengatik orain dirutza handiak ordaindu behar dituen jaun ohoragarriaren kontu horietariko bat. Horregatik esaten zioat etxe honi "xantaia etxea". Dena den, azalpen horrek ez dik den-dena argitzen —erantsi zuen. Eta hori esanda, gogoetan murgildu zen.

Gogoeta horietatik Utterson Jn.ak atera zuen ustekabeko galdera batekin.

—Ba al dakik taloia izenpetu zuena hortxe bizi al den?

—Toki oso aproposa izango lukek, ezta? —erantsi zuen Enfield Jn.ak—, baina zorionez bere helbideaz oroitzen nauk eta handik oso urrun ez dagoen plaza batean bizi duk.

—Eta inoiz ez diok inori ezer galdetu ate horri buruz? —galdetu zuen Utterson Jn.ak.

—Ez, gizon. Halako begirunea gorde zioat —izan zen erantzuna—. Galdera mota guztien aurka nagok, erabat. Azken Judizioaren Eguna gogorarazten zidatek maiz kontu horiek. Galde egitea harria jaurkitzea bezalakoxea duk. Mendiska baten tontorrean lasai-lasai eserita egon zitekek norbait; halako batean, harria abiadura osoz bazihoak bidean beste harri batzuei bultz eginez, harri guztiek gizarajo baten buruan jo arte (burura datorkiakeen azken pertsona, hain zuzen), bere lorategitik ezertarako ateratzen ez den gizarajo baten buruan hari guztiek jo arte, eta ondorioz familiak izena aldatu behar dik. Ez, lagun. Nik beti izan diat kontuan honako hau: gertaerak zenbat eta arraragoak izan, orduan eta galdera gutxiago egin.

—Jokabide zentzuduna hirea, oso —esan zuen abokatuak.

—Eraikina, berriz, nire kasa aztertu diat — jarraitu zuen Enfield Jn.ak—, eta ez zirudik bertan inor bizi denik. Ate bakarra duk hori eta inor ez duk hortik sartzen ez ateratzen, kontatu berri diadan abenturako protagonista izan ezik. Eta azken hau ere, oso noizean behin. Lehenbiziko estaian patiora agertzen diren hiru leiho zeudek. Beheko oinean, berriz, bat ere ez. Hiru leiho horiek beti zeudek itxita beirinak garbi egon arren. Bestalde, tximiniatik kea atera ohi duk; beraz, norbaitek bizi

behar dik etxean, ziur jakitea zaila bada ere, zeren-eta patio horretara agerten diren eraikinak hain daude pilatuta, ezen, bata non amaitzen den eta bestea non hasten den jakitea ezinezkoa baita.

Bi lagunek isilik jarraitu zuten oinez alditxo batez, harik-eta Utterson Jn.ak hitz egin zuen arte.

—Arau ona duk hirea, Enfield —esan zuen.

—Bai, hala uste diat —erantzun zion besteak.

—Dena den —jarraitu zuen abokatuak—, bada galdetu nahi niakeen gauza bat. Neskatoa lurrera bota zuen gizonak nola zuen izena jakitea gustatuko litzaidakek.

—Bueno —esan zuen Enfield Jn.ak—, ez diat uste ezer txarrik egon daitekeenik esaten badiat. Hyde zian izena.

—Bai —esan zuen Utterson Jn.ak—. Eta zer-nolako itxura dauka?

—Ez duk erraza bere itxura zehatz azaltzea. Bere itxuran bazegok zerbait goibel, higuingarri, nazkagarria, dudarik ez. Hala ere, ez niake asmatuko arrazoia azaltzen. Itxuragabetasun bat edo beste izango zian. Baina halako zirrara eragiten duk, zergatik zehatz-mehatz ez badakit ere. Ezina zaidak gizonaren itxura azaltzea. Eta ez pentsa

hartaz oroitzen ez naizenik, oraintxe bertan begien aurrean izango banu bezala baita.

Utterson Jn. isilik ibili zen beste tarte batez, gogoetek txundituta —agerian zegoenez.

—Ziur hago giltzaz ireki zuela? —galdetu zuen azkenik.

—Utterson maitea —erantzun zion Enfieldek, zeharo miretsita.

—Bazekiat —eten zion solaskideak—, ulertzen diat hire harridura. Izan ere, besteak nola duen izena galdetzen ez badiat, badakidalako da. Begira, Richard, bete-betean asmatu duk istorio horrekin. Zerbaitetan zehatza izan ez bahaiz, komeni lukek orain zuzentzea.

—Lehenago esan beharko hidan —ihardetsi zion besteak haserre—. Baina egon ziur zehatza izan naizela *pedanteriaraino*, heuk esan ohi duanez. Gizon hark giltza zeukaan; eta area gehiago, oraindik ere bazeukak. Astebete ez baita igaro berataz baliatzen ikusi nuenetik.

Utterson Jn.ak zizpuru sakona egin zuen, hitzik esan ez bazuen ere. Besteak jarraitu zuen:

—Noiz ikasiko dut mihinari eusten? —kexatu zen. Damu zaidak behar baino gehiago hitz

egin ez ote dudan... Egin dezagun tratu bat. Sekula ez diagu kontu honetaz gehiago hitz egingo.

—Bihotz-bihotzez hitz ematen diat —esan zuen abokatuak—. Bai, nire hitza daukak, Richard.

HYDE JN.AREN BILA

Gau hartan, Utterson Jn., ezkongabe betilunari dagokion bere etxera irisi eta mahaian eseri zen gogogabe. Igandeetan, afaltzen amaitutakoan, teologo gelberaren baten lana zetzan atrile aurrean edota sutondoan zegoen aulkian esertzeko ohitura zeukan, ondoko elizako erlojuan hamabiak jotzen zuten arte. Gaur hartan, berriz, zamaua jaso eta berehala, argimutilla hartu eta bere langelara joan zen. Han, dirukutxa ireki, "Jekyll Dr.aren Testamentua" irakur zitekeen eskutitz azala zokorik ezkutuenetik atera, eta edukia irakurtzera eseri zen beltzuri. Testamentua olografoa zen, zeren-eta Utterson Jn.ak, testamentu bukatu ondoren bere gain hartzea onartu bazuen ere, testamentuaren prestakuntzan parte hartzeari ezezko borobila eman baitzion. Agiriak zioenez, *Royal Society*-ko bazkidea eta Medikuntzan Doktore zen Henry Jekyll-en heriotzaren ondoren, zeukan guzti-guztia "adiskide eta ongile zuen Edward Hyde-k" eskuetaratu behar zuen, baita "hiru hilabetez baino luzeago Jekyll Dr.aren desagerpena edo ausentzia" gertatzekotan ere; beraz, aipatutako Edward Hyde hori bide zen Jekyll-en osasunez luzapenik gabe gozatuko litzatekeena, zergarik eta betebeharririk gabe, doktorearen morrontzakoei zuzendutako balio gutxiagoko diru kopuruen ordainketak izan ezik.

Testamentua, aspaldidanik, kezka-iturria zen Utterson Jn.arentzat. Kezkarazten zuen, abokatua zen aldetik ez ezik, gauza zentzuzko eta ohiturazkoen maitalea zen aldetik, ohiz kanpoko eta zitaltzat jotzen baitzuen, besterik gabe. Eta ordura arte Hyde Jn. non izan zitekeen ez jakiteak haserre baldin bazeukan, patuaren ustekabeko apetari esker gizon horri buruz jakindakoa zen orain bere haserrearen kausa. Ezagutzen ez zion izena besterik osatzen ez zuen pertsonari buruzko arazoa berez txarra baldin bazen, are okerragoa zen izaera higuinarriz jantzita azaltzen hasi zitzaionetik. Ustekabean, hain denbora luzez begia nahastu zion laino higikor eta gorpuzgabe horren artetik jauzi egiten zuen lehen planora deabruzko izaki haren irudiak.

"Zorakeria zela uste nian", esan zuen bere artean agiri gorrotagarria kutxan berriro sartuz, "gainera, doilorkeria ez ote den susmo txarra zeukat". Argimutila itzali, berokia jantzi eta sendagileen txokoa zen Cavendish plazara jo zuen, bere lagun Lanyon Dr.ak etxea bertan baitzuen, eta gaixoak ere hantxe bertan hartzen baitzituen. "Auzi honi buruz inork zerbait jakitekotan, Lanyon-ek", erabaki zuen.

Etkezain jatorrak ezagutzen zuen eta ongi etorria egin zion. Itxoinarazi gabe gidatu zuen jangelako ateraino, non mahaian eserita, bakarrik eta kopa bat ardo dastatzen, Lanyon doktorea baitzegoen. Bihotz oneko pertsona, osasuntsua,

kementsua, aurpegi gorrikoa, goizegi urdinduriko ileduna eta molde zaratatsuko eta ausartekoa zen. Utterson Jn. ikusterakoan, eserlekutik bizkor altxatu eta harengana jo zuen bi eskuak luzatzen zizkiola. Lehen begiratuan, bere bihotz onak gehiegizkoa ematen zuen beharbada, baina egiazko afektuari ihardesten zion. Bi gizonak aspaldiko adiskideak ziren, lagun zaharrak, bai ikastetxeko bai unibertsitate garaikoak, euren buruari baino begirune handiagoa zioten elkarri, eta, aurrekoaren ondorioa beti izan ez arren, elkarrekiko adiskidetasun horretaz gozatu egiten ziren.

Une batez zeharka-meharka ari izan ondoren, hain gogaikarri zitzaion gaira bideratu zuen abokatuak solasa.

—Oker ez banago —esan zuen—, geu gaituk Henry Jekyll-ek dituen lagunik zaharrenak.

—Hobe horrela ez balitz —esan zuen Lanyon-ek barrez—. Baina bai, ez diat uste oker habilenik. Eta, zertan dabil orain? Aspaldion ia ez nauk berarekin egon.

—Benetan? —izan zen erantzuna—. Hamar urte badituk, ordea, Henry Jekyll nire gustorako gehiegi konplikatzen hasi zela. Burutik zegok, eta jakina, garai zaharreatatik —esan ohi denez— axola bazait ere, azken hileotan gutxitan ikusten eta ikusi dudala egia hutsa duk. Bat ere zientifikoak ez diren zentzugabekeria guztioriek... —erantsi zuen

doktoreak, aurpegia gorrimitzen zitzaiola—, Daiman eta Pitias berberak ere etsaituko lizkiak berak.

Neurri batean, haserrealdi honek lasaitu egin zuen Utterson Jn. "Auzi zientifikoekin gaizki zetozek, besterik ez", pentsatu zuen bere artean. Eta zienzi auzitan gizon grinagabea zenez (lekualdatze paparei dagokien salbuespena eginda), oraindik ere erantsi zuen: "Zirtzilkeriak!" Adiskideari segundu batzuk eman zizkion neurria berreskura zezan eta ondoren etxe hartara eraman zuen gaiari ekin zion:

—Ezagutzen al duk haren itzala ematen duen hori, Hyde delako hori? —galdetu zion.

—Hyde? —galdetu zuen Lanyon-ek—. Ez. Inoiz ez diat haren berri izan. Hura ikusteari utzi nionez geroztik ezagutuko zian.

Hau izan zen abokatuak bere ohantze handi eta ilunera eraman ahal izan zuen informazio bakarra eta gau osoan ohean bueltaka egon zen, egunetiko lehen orduak gero eta luzeagoak egin ziren arte. Gauak atsedean txikia baizik ez zion ekarri bere burmuinari; iluntasunari aurrez-aurre, galdera amaigabeek eraso egiten ziotela, burmuina lanean ari zitzaion etengabe.

Utterson Jn.ak, etxetik hurbileko elizado ezkilek seiak jo zutenean, oraindik hausnar jarraitzen zuen arazoari buruz. Ordura arte, eite

intelektualak erakartzen zuen, baina orain arazoak irudimena zion bereganatua, eta gauaren eta gelaren ilunean iraulka ari zen bitartean, Enfield Jn.aren kontaketa bere begien aurretik iragatzen zitzaion irudi argitsuko sekuentzia amaigabea bailitzan. Gauean murgildutako farola errenkada etengabea ikusten zuen lehenik, gero lehiaz zebilen giza irudia, sendagilearen etxetik korrika ateratako neskatoarena eta, azkenez, bi giza irudiek nolatan egiten zuten topo.

Juggernaut gizatiarrak neskatoa zapaldu eta aurrera jarraitzen zuen bestearen oihuei jaramonik egin gabe. Beste batzuetan, luxuzko etxe bateko logela —non haren adiskidea lotan baitzegoen ametsei irri eginez— ikusi ohi zuen. Menderatuta zeukan giza irudia alboan zuen, eta, gaueko ordu horretan ere, Jekyll-ek ohetik altxatu eta bestearen aginpideak onartu baino beste biderik ez zeukan. Bi sekuentzietan agertzen zen giza irudiak obsesionatuta eduki zuen abokatua gau osoan, eta kuluxkaren bat egin zuen une eskaxetan, lotan zeutzan egoitzetatik ihes egiten ikusi zuen, gero eta azkarrago, ziztu biziko abiadura hartu arte, farolek argitutako hiriko labirintoan zehar, kantoi bakoitzean neskato bat zapalduz eta bertan behera utziz biktimaren oihuei jaramonik egin gabe. Eta giza irudiak ez zeukan aurpegi ezagunik. Ametsetan ere ez zeukan begitarterik, eta izan ezkerero, bereari barre egiten zion segundu batez agertuz eta segituan desagertuz. Beraz, abokatuaren gogoan Hyde Jn.aren aurpegia ikusteko oso

ikusmin handia sortu zen, baita bizkor samar hazi ere. "Hura ikusterik izango banu, behin bakarrik izanda ere", pentsatu zuen, "misterioa argituz joango lukek eta agian zeharo desagertuko lukek, zehatz aztertzen den edozein gertakariarekin jazotzen den bezala. Agian, nire lagunaren hobespena edota morrontza arraroaren arrazoia (dei bekio nahi bezala) jakin nezakek, eta baita testamentu harrigarriarena ere. Behintzat, gupidarik gabeko, errainik gabeko gizon baten aurpegia ikusteak mereziko likek, behin bakarrik azaldu zen aurpegiak hilezinezko gorrotoa piztu baitzuen bat ere hunkibera ez den Enfield-en gogoan".

Egun hartatik aurrera, denden kalekara zabaltzen zen ate inguruan ibiltzen hasi zen Utterson Jn. Goizean egiten zuen, bere bulegora abiatu aurretik; eguerdian, lan asko eta denbora gutxi zituenean; gauez, hiri gainean zabal zetorren ilargiaren begiradapean. Edozein argitan eta ordu guztietan, kalea jendez beteta nahiz jenderik gabe egon, abokatuak zelatan irauten zuen horretxetarako aukeratuta zeukan tokian.

—Bera Hyde Jn. baldin bada —erabakita zeukan—, ni, orduan, Seek Jn.¹ izango nauk.

Azkenik, bere pazientzia saritua ikusi zuen. Gaua oskarbi zegoen, haizea hotz, kaleak

¹ Hitz joko itzuliezina. Hyde hitza Hide (ezkutatu) hitza bezalaxe ebakitzen da; Seek hitzak, ordea, bilatu esan nahi du. (I.O.)

dantzagelako pista bezain garbi. Argiek, haizerik ezean, argi-itzalen marrazki zehatza proiektatzen zuten zementu gainean. Hamarrak aldean, dendak itxita, kale ziztrina bakardadean eta isil-isilik gelditzen zen, inguratzen zitzaion Londresko zaratak iristen bazitzaizkion ere. Hotsik nimiñoena urrun-urrun entzuten zen. Etxe barrutik ateratako hotsak nabarmen entzuten ziren kalearen alde banatan eta azkenoi ibiltarien oin hotsak zerraizkien luzaro. Utterson Jn.ak bazeramatzan minutu batzuk bere tokian zelatan, hurbiltzen ari ziren urratsak —arinak eta bitxiak— entzun zituenean. gaueko zainaldioi esker, efektu ikusgarri batera ohitu zen: oraindik urrun zegoen pertsona baten urratsak entzun eta ustekabeen bereizten zituen, garbi-garbi, hiriko zaratatik eta iskanbilatik. Urratsek, ordea, sekula ez zuten harritu han era zorrotz eta erabakiorraz; beraz, patiorako sarreran ezkutatu zen arrakasta-susmo superstiziosoa sentitzen zuelarik.

Urratsak azkar-azkar ari ziren hurbiltzen eta kale kantoira bira ematerakoan, are sendoagoak entzun ziren. Abokatuak bere gordelekutik begiratu eta laster konturatu zen zer-nolako gizonarekin ihardun beharko zuen. Garaiera motzekoa zen eta apaindurarik gabe jantzia. Urrutitik ere, bazetorren gizonaren itxurak oso adar txarra eman zion zelatan zirauen abokatuari. Aterantz jo zuen zuzenezuzenean, denbora irabaztearren kalea gurutzatuz, eta aurrera egin ahala, etxera hurbiltzen ari denaren keinu sendoarekin atera zuen giltza.

Ondotik igaro zitzaionean, Utterson Jn.ak urrats bat aurrera eman eta sorbaldan ukitu zuen.

—Hyde Jn., oker ez banago.

Hyde-k urrats bat atzera egin eta ahokada bat aire arnastu zuen zizika. Haren beldurrak, ordea, une batez iraun zuen eta, abokatuaren aurpegira zuzenean begiratu ez arren, erantzun zuen hotz:

—Berbera. Zer egin dezaket zutaz?

—Etxean sartzera zindoazela ikusi dut eta... —erantzun zuen abokatuak—. Azalduko dizut, Jekyll doktorearen lagun zaharra naiz. Utterson Jn., Gaunt kalekoa; izenaz ezagutuko nauzu, agian. Hain garaiz iristen ikusi zaitudanean, sartzen utziko zenidala otu zait.

—Jekyll doktorea ez duzu aurkituko. Kanpoan da —erantzun zuen Hyde Jn.ak giltzaren zulotxotik putz egiten zuen bitartean. Eta gero aurrera segitu zuen begia altxatu gabe—. Nolatan ezagutu nauzu?

—Mesede bat egingo al zenidake? — galdetu zion Utterson Jn.ak.

—Jakina —ihardetsi zion beseak—. Zein?

—Utziko al zenidake zure aurpegia ikusten?
—galdetu zion abokatuak.

Hyde Jn.ak duda egin zuela iruditu arren, azkenik, bat-bateko erabakiaren ondorioz bezala, aurpegi-aurpegira begiratu zion aupada keinuaz.

—Zure aurpegiaz oroituko naiz —esan zuen Utterson Jn.ak—. Onerako izan daiteke, oso.

—Bai —erantzun zuen Hyde Jn.ak—. Ez dago gaizki guk elkar ezagutzea. Beste gauza bat. Nire helbidea emango dizut.

Eta Sohoko kale jakin bateko zenbakia esan zuen.

—Jainkoarren! —hots egin zuen Utterson Jn.ak bere golgorako—. Bera ere pentsatzen aritu ote da testamentuari buruz?

Hala ere, beldurra beretzat gorde eta ulertzen zuela eman zion aditzera marmar axolagabe batez.

—Eta esaidazu orain —esan zuen bestek—, nola ezagutu nauzu?

—Zure deskribapenari esker —izan zen erantzuna.

—Nork eman zizun?

—Lagun berberak ditugu —esan zuen Utterson Jn.ak.

—Lagun berberak? —errepikatu zuen Hyde Jn.ak halako lazkeria batez—. Nortzuk?

—Jekyll, adibidez —esan zuen abokatuak.

—Hark ez dizu ezer esan —oihukatu zuen Hyde Jn.ak haserre—. Ez nuen uste gezur esateko gai izango zinenik.

—Ea, ea —esan zuen Utterson-ek—. Hizkera modu horrek ez dizu onik egiten.

Besteak basati barre egin eta segundu batean, azkartasun harrigarri, atea ireki eta etxe barruan desagertu zen.

Abokatuak lurrari josita iraun zuen zenbait unez. Artegatasunaren irudi berbera zen. Gero, kalean gora ibiltzen hasi zen, urrats bakoitzean geldituz eta eskua kopetara jaso, duda sakonetan murgilduta bailegoen. Ibili ahala, bere buruarekin eztabaidan zerabilen arazoa ia sekula konpontzen ez diren horietakoa zen. Hyde Jn. gizon txikia, zurbila zen; itxurarik gabea izatearen inpresioa eragiten zuen, konkortua ez bazen ere; irri desatsegina zuen, erdi herabe-erdi ausart zuzendua zitzaion abokatuari, eta erlats, ahopeka hitz egiten zuen, etenka bezala. Guztionek, jakina, bere aurka

jartzen zuen edonor lehen unetik; hala ere, Utterson Jn.arenan sortarazitako gehiegizko nahigabe, higuin eta beldurra ez zuen horrek bakarrik adierazten. "Beste zerbait egon behar duk", esan zuen bere artean, txundiduraz. "Beste zerbait egon behar duk; gizon honek ez baitirudi gizakia. Trogloditaren antza dik, nolabait esateko. Fellen Dk.-aren² bertsio berri baten aurrean ote gaude? Ala bere lohizko jazkia azalarazi eta aldarazten duen espiritu gaizto baten dirdira baino ez da? Azken hau izango dela uste diat. Henry Jekyll lagun gizarajoa! Deabruaren sinadura begitarte batean inoiz irakurri badut, hire lagun berriaren aurpegian".

Kalexkatik ateraz, izkina atzean, itxura ederreko eta etxe zaharrez inguraturiko plaza bat zegoen, etxe gehienak behera etorrita eta gela eta ganbaren arabera sailkaturik zeuden, eta edozein giza maila eta motako pertsoneri alokatzen zitzaizkien: mapa grabatzaile, arkitekto, halamoduzko etika zerabilten abokatu eta enpresa goibelak sortzen zituzten arduradunei. Etxe horietariko batek, ordea, izkinatik hasita lehenak, bizilagun bakarrekoa izaten jarraitzen zuen eta horren ate aurrean gelditu eta hots egin zuen Utterson Jn.ak —ate horrek aberastasunaren eta erosotasunaren antza zuen, goibeltasunean

² John Fell doktorea (1625-86), Oxfordeko apezpikua. Haren izena koplari honi loturik egon zen: "Ez zaitut gogoko, Fell Dk. / Zergatik, nik ez dakit / ondotoxi dakit ordea / inork ez zaituela gogoko, Fell Dk.".

murgilduta egon arren (goialdetik iragazten zen argitasuna gorabehera)—. Ondo jantzitako morroiak, adinekoak, ireki zion atea.

—Jekyll doktorea etxean al da, Poole?

—Oraintxe ikusiko dut, Utterson Jn. —esan zuen etxezainak. Hitz egin ahala, sabai motzeko eta lauzaturiko egongela handi eta eroso batera pasarazi zuen bisitaria, sutondoari esker (baserrietakoa bezalakoxea) bero-bero eta harizkiz egindako luxuzko armairuekin apaindua.

—Sutondoan itxarongo duzu, jauna, ala jangelako argitasunera eramango zaitut?

—Hementxe itxarongo diat, eskerrik asko —esan zuen abokatuak. Gero, sutondora hurbildu eta su aurrean zegoen burdinxarean sostengatu zen. Bere lagunak gehien maite zuen gelan zegoen. Utterson-ek, bi aldiz pentsatu gabe, Londresko gelarik erosoena zela zin egingo zuen. Gau hartan, ordea, zainak dardar hutsean zeuzkan. Hyde-ren oroitzapenak ez zion gogotik alde egiten. Berarengan ezohikoa izan arren, nazka eta higuina sentitzen zuen bizitzaz, eta bere gogoaldiaren kariaz, armairuen azal bigunetan isladaturiko suan eta sabaian dantzan egiten zuten itzal kezkarrietan mehatxua irakur zitekeela iruditzen zitzaion. Handik gutxira, Poole Jekyll joana zela iragarritz itzuli zenean, hartu zuen atsedeen sententzioaz lotsatu egin zen.

—Hyde Jn. ikusi berri diat antzinako ebakuntza aretoko atetik sartzen, Poole —esan zuen Utterson Jn.ak—. Jekyll doktorea etxean ez dagoenean ere zilegi al zaio hona etortzea?

—Jakina, Utterson Jn. —ihardetsi zion etxazainak—. Hyde Jn.ak giltza du.

—Dirudienez, hire nagusia erabat fidaturik zegok gizon horretaz, Poole —segitu zuen bestek pentsakor.

—Bai, jauna, hala da —esan zuen Pool-ek—. Denok jaso dugu jaun horren esanak betetzeko agindua.

—Ez diat uste Hyde Jn. ezagutzen dudarik —esan zuen Utterson-ek iruzkin modura.

—Ez, Jainkoarren, jauna! Sekula ez du etxean afaltzen —ihardetsi zion etxezainak—. Egia esan, kasik ez dugu ikusten etxe barruan. Laborategitik sartu eta atera ohi da.

—Bueno, alde egingo diat orduan. Gabon, Poole.

Abokatua etxera abiatu zen kezka josita. "Henry Jekyll gizarajoa", pentsatu zuen bere artean. "Grina gaiztoei emandako gaztaroa izan omen zian. Noski, denbora luzea igaro duk ordutik hona, baina

Jainkoaren legearen arabera, gaizki eginek irautea zeukatek lege. Hori izan behar dik: bekatu zahar baten mamua, ezkaturiko lotsakizun baten minbizia. Azkenik, zigorra urriki gabe iristen duk, *pede claudo*, gaiztakeriaz ahaztu eta handik urte batzuetara, geure buruaz daukagun iritzi onak jada gaiztakeriak barkatu digunean".

Abokatuak, pentsamenduon beldur, bere iraganaldiari buruzko gogoetak egin zituen oroimenaren bazterretatik zerbaiten bila, harriduretako kaxa barrutik ibilarazten duen malgukidun panpina bezala, ea dongakeriarik aurkitzen zuen. Haren iraganaldia, aldiz, hobenik gabea zela esan zitekeen. Beldur txikiagoz gizon gutxik azter zitzaketen euren bizitzak, eta, hala ere, Utterson Jn.ak lotsa handia hartu zuen egindako ekintza txarrak zirela kausa eta bihotza Jainkoarenganatu zuen esker oneko, ugariak baitziren egitear egon baina azkenik egin ez zituen txarkeriak. Gai honi buruz pentsakor zirauen bitartean, itxaropen izpi batek gogoia argitu zion. "Hyde Jn. delakoak, berriz", esan zuen bere artean, "bere sekretuak izan behar dizkik, eta, nolako itxura duen ikusita, oso sekretu goibelak behar dituk izan, eta sekretu horien aldean Jekyll gizajoaren gaiztakeriarik okerrena eguzki argia bezain distiratsua izango duk. Gauzek ezin ditek honala jarraitu. Henry gizajoaren ohandze inguruan ere izaki gaizto hori, lapur antzo, ibil daitekeela pentsatzeak nazka ematen zidak. Zorigaiztoko Jekyll! Zein mingotsa hire esnatzeak! Gainera,

arriskuan zegoen, zeren Hyde delakoak testamentuaren existentzia susmatuko balu, bere onetik atera liteke herentzia dela eta. Zerbait egin behar diat berehalakoan. Jekyll-ek utziko balit..." Eta gero errepikatu zuen "Jekyll-ek zerbait egiten utziko balit...". Zeren oroimenaren begiez berriro ikusten ari baitzen, gardentasuna bera bezain garbi, testamentuaren hitzarmen arraroa.

JEKYLL DK. LASAI ZEGOEN

Bi aste geroago, patuaren apeta atsegin horietariko baten bidez, Jekyll Dk.ak bere lagun onenetariko bost edo sei gonbidatu zituen afaltzera, guztiak adimentsuak, ospe on-onekoak eta ardo dastatzaile apartak, eta Utterson Jn.ak, afaltiarren alde egin eta gero, anfitroiarekin bakarka gelditzearren, jakin zuen nondik hasi. Hura ez zen gauza berririk, askotan gertatu ohi zitzaiola baizik. Utterson maite zuten tokian, ondo asko maite zuten. Anfitrioiek etxean edukitzen zuten abokatu zorrotza, gibel-handi eta hitzontziek erlaitza zeharkatu ostean. Haren adiskidetasun zuhurrarekin egoteak atsegin handia ematen zien, zeren-eta, alaitasun melengak ekarritako tentsioaren ondoren, abokatuaren isiltasun emankorrean pentsamendua baketzeko aukera baitzuten, bakartasuna praktikatu.

Jekyll Dr. ez zen arauaren salbuespena. Sutondotik hurbil eserita, Utterson-en aurrean, begiradak lagunarekiko maitasun jator eta sakona frogatzen zion. Bestalde, doktorea berrogeita hamar bat urtekoa zen, luzea, sendoa, aurpegi urgurikoa, espresio maltzur samarrekoa apika, baina adimena eta bihotz ona erakusten zuena.

—Aspalditik neukaan hirekin hitz egiteko gogoia, Jekyll —esan zion—. Oroitzen al haiz egin genuen testamentuaz?

Behatzaile ona berehala ohartuko zen entzuten ari zenari ez zitzaiola gaia gogoko. Hala ere, doktoreak alai erantzun zuen.

—Ene Utterson gizarajoa! —esan zuen—. Hirea bai zorte txarra, bezero suertatu natzaik eta. Agiria irakurri huenean, hirea baino aurpegi kezkatuagorik ez diat sekula santan ikusi, Lanyon buruberoarena izan ezik, beharbada, "nire uste oker zientifikoak" deitzen dituenaren aurrean. Bai, bai. Bazekiat oso pertsona jatorra dela. Ez hadi zapuztu. Gizon aparta duk eta gustatuko litzaidakek maiz bera ikustea. Dena den, ezjakin, burubero eta, dudarik, sasimaisu hutsa duk. Inor ez zaidak ustelago atera bera baino.

—Hik badakik agiri hori sekula onartu ez dudala —jarraitu zuen Utterson-ek, lagunaren hitzei jaramonik egin gabe.

—Nire testamentuari buruz ari haiz? Bai, noski, bazekiat —esan zuen doktoreak pittin bat haserre—. Esan egin didak.

—Ba berriro esango diat —jarraitu zuen abokatuak—. Zenbait gauza jakin ahal izan dizkiat Hyde Jn.aren gainean.

Jekyll doktorearen aurpegi ederra ezpainetaraino zurbildu zen eta begiak goibeldu zitzaizkion.

—Gai horri buruz ez diat hitz t'erditxo ere entzun nahi —esan zuen—. Gaia berriz ere hizpidera ez ekartzea adostuta geneukalakoan nengoan.

—Kontatu didatena izugarria duk —jarraitu zuen Utterson-ek.

—Horrek ez dik ezer aldatuko. Hik ezin duk ulertu zer-nolako egoeran nagoen —erantzun zuen doktoreak inkoherentziaz—. Kinka larrian nagok, Utterson, bizitzako zertzelada zinez arraro batean nagok. Halako gauzak ez dituk mintzatuz konpontzen.

—Jekyll —esan zuen Utterson-ek—, hik ondo ezagutzen nauk eta badakik nitaz fida haitekeela. Konfidantza osoz hitz egin diezadakek eta ez izan dudarik sasi artetik hi ateratzeko gauza naizenik.

—Nite Utterson maitea —esan zuen doktoreak—, hire bihotz onak hunkituta naukak. Lagun aparta haiz eta erakusten didaan maitasuna eskertzeko hitzik ez diat aurkitzen. Sinesten diat eta beste edozeinetaz baino lehenago fidatuko nindukek hitaz; ai, nigan baino fede handiagoa zeukat higan. Baina kontua ez zatzak hik uste duan horretan. Arazoa ez duk hain larria. Hyde Jn. delakoa nahi dudan unean bidal nekazek pikotara. Zinez. Bihotz-bihotzez eskertzen diat hire axola eta

gauza bakar bat erantsi nahi nitek, eta ondo hartuko duala espero diat. Neroni bakarrik dagokidan arazoa duk eta ez diat gai honetaz sekula berriro hitz egin nahi.

Utterson-ek, sutara begira, gogoetak egin zituen segundu batzuz.

—Ziur nagok zuzen hagoela —esan zuen azkenik zutituz.

—Gaiari buruz azken aldiz ari garenez gero —segitu zuen doktoreak—, bazegok argitu nahi nukeen puntu bat. Oso kezkatuta utzi naik Hyde gizarajoak. Bazekiat ikusi duala, berak esan zidak, eta beldur nauk oso zakar jokatu ote zian hirekin. Hala ere, bihotzez esaten diat gizon horrek oso kezkatuta naukala, eta gauza bat agindu behar didak, Utterson, hiltzen banaiz, gizon horrekin jasankorra izango haizela eta bere eskubideak defendatzen lagunduko dioala. Kontu guztiau barru-barrutik ezagutuko bahu, horrelaxe egingo hukeelakoan nagok. Zama astuna kenduko hidake gainetik hori hitz emango bahit.

—Nire gustoko pertsona inoiz izango denik ezin diat hitz eman —esan zuen abokatuak.

—Hori ez duk eskatu diadana —ihardetsi zion Jekyll-ek lagunaren beso gainean eskua baratuz—. Zuzentasuna baino ez diat nahi. Ni

hemen ez nagoenean, nire izenean lagundu behar diok.

Utterson-ek zizpuru erreprimiezina bota zuen.

—Ederki —esan zuen—. Hitz ematen diat.

CAREW-EN HILKETAREN KONTUA

Ia urtebete igaro ondoren, 18...-ko urrian, Londres osoak dardar egin zuen zeharo basatia izan zen hilketaren berri izan zuenean. Biktima oso maila oneko gizasemea zenez, hilketa are nabariagoa izan zen. Jakin zutena gutxi izan zen, harrigarria bai ordea. Ibaitek ez oso urrun etxe batean bakarrik bizi zen neskamea logelan zegoen hamaikak aldean, lotara joateko tenorea baitzen. Egunsentian lainoa inguratu ohi zitzaion hiriari, eta beraz, gaueko lehen ordu haietan giroa garbi zegoen eta kalera agertzen zen neskamearen leihoa ilargiak argitzen zuen. Agi zenez, emakume hura izatez erromantikoa zen, leiho azpian hain zuzen jarritako kutxa baten gainean eseri eta hantxe gelditua baitzen ametsetan murgilduta. Gizateriarekin sekula —esaten zuen malko mingotsez— sekula ez nintzen horrelako bakean sentitu, ezta hain sosegaturik ere, munduari buruz pentsatzerakoan.

Eta egoera hartan zegoela, kaletik hurbiltzen ari zen taxu oneko eta ile urdineko agurea ikustea suertatu zitzaion. Garaiera motzeko beste jaun bat —azken honi ia ez zion so egin— kontrako norabidetik zetorren. Bi gizonak elkarrekin gurutzatu zirenean (bere leiho azpian hain zuzen gertatu zena), agureak kilimusi egin eta gizalegez zuzendu zitzaion besteari. Itxuraz, elkarriketagaiak ez zuen inongo garrantzirik. Egia

esan, agureak egiten zituen keinuak ikusita, bazirudien argitasun eske zebilela toki jakin batera iristeko. Ilargia aurpegian islatzen zitzaion eta, mintzatu ahala, neskameak gogara behatu zion. Jaun honi gizalege, ontasun eta xalotasuna nabaritzen zitzaizkion; horrez gain, bazerion ere bai halako gorentasun bat, barru-barrutik ezbairik gabe gainezka egiten zion halako betetasun bat. Beste gizonari begia zuzendu zion orduan, eta behinola bere nagusiari bisita egin zion Hyde Jn. zelakoa ezagutzerakoan harritu egin zen, gizon hura ezagutu eta berehala begitan hartuta baitzuen. Eskuan bazeraman makiltxo bat, eta hartaz jostatzen zen urduri. Agureari ez zion hitzik erantzun eta bere buruaz hala-hola jabe denaren ezinegonaz entzuten ziola zirudien. Ustekabean, amorruez lehertu zen. Lurrari ostikoka hasi eta airean makila astintzen zuen (neskameak holaxe kontatu baitzuen), zoraldi batek jota balego bezala. Agureak, bere solaskidearen jarreraz harrituta, urrats bat atzera egin zuen, eta une hartan Hyde Jn.ak bere onetik atera eta agurea kolpatu zuen lurrera erorazi arte. Segundu baten ondoren, tximino indarrez, biktima ostikopetzen hasi zen kolpe zaparrada batekin batera. Kolpeak hain ziren gogorrak izan ezen neskameak hezurak puskatzen entzun zuen eta azkenik gorputzak galtzadaren aurka jo zuen. Ikuspenak eragindakoa izua eta hezur hotsak zirela eta, emakumeak konortea galdu zuen.

Goizeko ordubiak ziren bere senera etorri eta poliziarri gaztigatu zionean. Hiltzailea

aspaldidanik joana zen. Biktima, berriz, kale erdian hautsita zetzan. Hilketan erabilitako makila — ezohiko egurrez egina, bereziki gogorra eta pisu handikoa izan arren— erditik puskatuta zegoen zentzurik gabeko krudelkeria zela medio; eta bi pusketariko bat hurbileko estolda batean erorita zegoen. Beste erdia hiltzaileak berekin eraman zuen, ezbairik gabe. Biktimaren jantzian diru zorroa eta urrezko erlojua aurkitu arren, agiririk edota nortasun txartel bat ere ez zuen kausitu, lakrez eta zigiluz itxitako eskutitz bat izan ezik, gutunontziren batean uztera zihoana eta Utterson Jn.ari zuzendua.

Biharamunean, abokatua ohean oraindik zegoela, eskutitza eraman zioten. Utterson Jn.ak eskutitza begiz jo eta gertatua entzun zuenean, honako hitzak ahoskatu zituen geldiro:

—Gorpua ikusi arte ez dut ezer esango. Oso gai garrantzitsua izan behar da. Jantzi artean itxaron ezazue apur batez, mesedez.

Eta begitarte larri horrekin azkar-azkar gosaldtu, zalgurdira igo eta gorpua zegoen Polizi Komisaldegira abiatu zen. Gorpua ikusi bezain laster, baiztu egin zuen:

—Bai —esan zuen—. Ezagutzen dut. Sentitzen dut hauxe esan beharraz: Sir Dawers Carew da.

—Ene Jainkoa! —oihu egin zuen ofizialak—. Ezin liteke.

Une hartan, ofizialaren begiradak halako dirdira handinahi bat islatu zuen.

—Guztionek zalaparta handixea aterako du, dudarik gabe —jarraitu zuen—. Agian, zeuk lagun diezagukezu hiltzailea aurkitzen.

Hau esanda, neskamearen deklarazioaren berri eman eta makilaren erdia erakutsi zion.

Utterson Jn.ak Hyde Jn.aren izena entzuterakoan, zirgin egin zuen; baina makil puska bere begiez ikusi zuenean, duda egiterik ez zegoela ulertu zuen. Hautsita eta gaizki erabilita egon arren, zuela urte asko Henry Jekyll-i oparitu zion makila ezagutu zuen.

—Hyde Jn. izeneko hori gizon txikia al da? —galdetu zuen.

—Neskameak dioenez, txiki-txikia eta ezin itsusiagoa da —esan zuen ofizialak.

Utterson Jn.ak gogoetak egin eta gero, esan zuen burua jasoz:

—Nirekin etorri nahi baduzu, haren etxeraino gidatuko zaitut.

Ia goizeko ordubiak ziren eta urtaroari zegozkion lainoaldiak hasiak ziren. Txokolate koloreko lanbro-mantu bat jaisten ari zen zerutik, baina borrokarako prest zeuden lurrunei haizeak eraso eta sakabanatzen zituen etengabe; beraz, zalgurdia aurreratu ahala, ñabardura eta gradu ezberdineko argi erdi goiztiarrari beha egiteko parada izan zuen Utteron Jn.ak: gaueko ezkutukoenaren antza zeukan iluntasuna hemen; erreka harrigarria bezalako marroi biziko distira hartzen zuen han. Gero, une batez, lainoa barreiatu eta larrun zatitxo artegen artetik eguneko argi izpi bat iragazi zen. Abokatuaren begian, Soho auzo mixerableak amesgaiztoko auzoaren traza harturik zeukan: distira aldakorren artean hondoratu, kaleak lohiz gainezka, bihotz gogorreko ibiltariak han-hemen eta oraindik itzali gabe zeuden kaleargiak —edo berriro piztu zituztenak goibeltasunaren inbasio berriari aurre egitearren—. Bere pentsamenduak, bestalde, ezin goibelagoak ziren, eta bidaiakideari begiratzen zionean, ondraduenengan ere legeak eta beronen ordezkariak sortarazi ohi duten bihotz ikara horixe sentitu zuen.

Aipatutako etxe aurrean zalgurdia gelditzen hasi zenean, lainoa pittin bat barreiatu zen etxe mixerablea agerian utziz. Taberna bat, frantses sukaldaritzako jatetxea, purtxilkeriak eta zirtzileriak saltzen zituen kobazuloa, ate-orpoetan pilaturiko haur arlote piloa eta, giltza eskuan, goizeko zurrutada egitera abiatzen ziren

nazionalitate desberdineko emakumeak ere ikus zitezkeen.

Jarraian, ordea, lainoa hiriko auzoari osterera ere inguratu zitzaion eta Utterson Jn. isolaturik gelditu zen toki mixerable hartan. Jekyll doktoreak babestutakoaren etxe aurrean zeuden bera eta bere laguntzailea —milioi laurden bat libra esterlina heredatu behar zuenaren etxe aurrean.

Ile urdineko eta boli antzeko begitartea zeukan emakume batek ireki zien atea. Itxurakeriak arindutako taxu gaiztokoa izan arren, molde onekoa zen. Bai, baieztu zuen, Hyde Jn.aren etxea zen hura, baina nagusia kanpoan zegoen. Aurreko gauean, goizean goiz itzuli eta ordu bat geroago kalera joan zen berriro. Ez, ez zen bat ere arraroa. Hyde Jn.aren ohiturak oso arauz kanpokoak ziren eta sarritan ateratzen zen. Esate baterako, bi hilabete zeramatzan etxetik agertu gabe, aurreko gauean hala egin zuen arte.

—Ederki, gida gaitzazu bere geletara — esan zuen abokatuak. Eta ezinezkoa zela esateko asmoz emakumeak ahoa ireki zuenean, jarraitu zuen—; hobe izango da jaun honen nortasunaren berri zuri ematea. Newcomer ikerlaria duzu, Scotland Yard-ekoa.

Zorotasun higuigarri izpi batez argitu zuen emakumearen begitartea.

—A! —hots egin zuen—. Isitilu ederrean sartu da azkenik, ezta? Zer egin du?

Utterson Jn.ak eta ikerlariak elkarri begiratu zioten.

—Ez dirudi begikotasun handirik diozunik —ohartarazi zuen ikerlariak. Eta gero, jarraitu zuen—: Orain, emakume zintzo horrek, utziguzu jaun honi eta bioi gelei begirada bat ematen.

Etxe osoan, non aipaturiko atsoa bakarrik bizi baitzen, luxuz eta gustu zoragarriz altzariz jantzitako bi gela baino ez zituen erabiltzen. Ardangela ardoz beteta zeukan, zilarrerria ere bazegoen, zamauak bikainak ziren; hormatik zintzilik ere bazegoen irudi on bat, Henry Jekyll-en oparia —Utterson-ek pentsatu zuenez—, Jekyll oso aditua baitzen halako gauzetan, eta tapizak usuak eta begi alaigarriak ziren. Gelako gauzak nola zeuden ikusita, azken bazterra ere hankaz gora jarriz norbait igaroa zela ematen zuen. Jantziak (poltsikoak kanporantz itzulikatuta) sakabanaturik zeuden lurrean zehar, kaxoiak irekita zeuden eta paper multzo bat erretzen norbait ibilia zela salatzen zuten errauts urdinzka piloa ere bazegoen sutondoan.

Suaren indarrak guztiz suntsitu ez zuen berde koloreko txeke taloitegiaren matrizea aurkitu zuen ikerlariak errekinen artean. Ate atzean makilaren beste erdia aurkitu zuen, eta horrek

zeuzkan susmoak baieztatzen zizkionez, polizia poz-pez agertu zen aurkikuntza zela eta. Abiatu ziren, beraz, banketxera, non ustezko hiltzaileak bere kontu irekian libra mordoska zeukala jakin baitzuten, eta ondorioz, Newkomer ikerlariaren jakinminak aski eta sobera izan zuen.

—Baiez, jauna, baietz —esan zion Utterson Jn.ari—. Atxilotutzat jo dezakezu. Burua galdu omen du, bestela ez zukeen makilaren erdia utziko aurkitzea hain erraza zen tokian. Eta are garrantzitsuagoa dena, ez ziokeen txeke taloitegiari su emango. Une honetan, dirua da hain zuzen gehien behar duen gauza. Banketxetik noiz azalduko zain egongo gara eta atxilotu egingo dugu, nahikoa erraz.

Azken hori, ordea, poliziaren uste ona gorabehera, ez zen hain erraz gauzatu. Hyde Jn.ak ezagun gutxi zituen —hilketa ikusi zuen neskamearen nagusiak ere pare bat aldiz baino ez zeukan ikusita— eta zeharo ezinezkoa izan zen haren seniderik aurkitzea. Bestalde, hiltzailearen argazkirik ez zeukaten, eta deskribatu ahal izan zuten pertsona bakanek bertsio kontrajarriak eman zituzten hiltzailearen itxurari buruz. Puntu bakar batean soilik zetozen bat guztiak: hura ikusten zuten guztiengan iheslariak eragiten zuen itxurakeria sentsazio lainotsua azpimarratzean.

ESKUTITZAREN GERTAERA

Arratsaldeko azken orduetan, Utterson Jn. doktorearen etxera iritsi zen. Berehala, Poole-k atea zabaldu eta morroitzako geletan barna eta behinola lorategia izandako patioan zehar gidatu zuen, eta laborategi edo ebakuntza gela izen desberdinekin zeritzoten eraikineraino heldu ziren. Doktoreak zirujau ospetsu baten senideei erosi zien etxea eta horren zaletasuna anatomiarantz baino gehiago kimikarantz bideraturik zegoenez, lorategi barruan altxatutako eraiketaren helburua aldarazi zuen.

Abokatua lagunaren etxebizitzaren alde horretatik zebilen lehenbiziko aldia zen. Leihorik gabeko eraiketa goibelari begia zuzendu zion jakinguraz eta, behin barruan, begirada bat eman zion inguruari, ebakuntza gela (lehen, ulertzeko ikasle jakin-gosez betea; orain, ordea, bakartia eta ixila) ikusterakoan harritasun desatsegina nabaritu zuelarik. Mahaiak ikerlan kimikoei buruzko tresnaz josita zeuden, eta ohol-kaxak eta enbalatzeko lastoa lurretik sakabanatuta ikus zitezkeen. Kupula hodeitsutik argia sartzen zen. Barruan, eskailera batek gorri koloreko feldro batez tapizaturiko ate bateraino zeraman, eta Utterson Jn.ak bertako atalaxea zeharkatu behar izan zuen doktorearen kabinetean sartzeko. Azken hau gela handi bat zen, beirazko atetxoak zituzten armairuz apaindua eta gorputz osoko ispilu batez eta idazmahai batez, besteak beste, jantzia. Burdin-haga batez

babesturiko hiru beirate hautsezatuen bidez zabaltzen zen patiora. Sutegian sua izekitzen zegoen eta erlaitz gaineko argia piztua zuten, etxe barruan ere lainoa pilatzen hasia baitzen.

Han, supazter txokoan, Jekyll doktorea eserita zegoen, eta oso gaixorik zirudien. Ez zen zutitu adiskideari abegi egitearren, esku keinu batez ahots ezagutezinez agur egin ziola baizik.

—Esaidak —esan zuen Utterson Jn.ak Poole gelatik atera bezain laster—. Gertaeren berri izan al duk?

Doktoreak zirgin egin zuen.

—Egunkari saltzaileek kalean oihukatu ditek albistea. Egongelatik entzun zieat.

—Utzidak gauza bat esaten —esan zuen abokatuak—: Carew nire bezeroa zuan, baina heu ere nire bezeroa haiz eta zinez zer gertatu den entzun nahi nitek. Gizon hori ezkutatzeko bezain eroa ote haiz?

—Utterson, Jainkoa lekukotzat jartzen diat eta zin egiten diat —oihukatu zuen doktoreak—, gauzarik sakratuenaren izenean zin egiten diat: sekula ez dudala berriro gizon hori ikusiko. Nire jaun-hitza ematen diat Hyde-rekin bitizta osorako kito egin dudala. Sekula ez diat berriro ikusiko. Eta benetan esaten diat: hark ez dik inolako laguntzarik

onartu nahi. Nik bezala ez duk ezagutzen. Bizirik eta onik zegok, eta sekula ez diagu haren berri izango.

Abokatuak goibel entzun zion. Lagunaren itxura sukartsua ez zitzaion gogoko.

—Ziur-ziur ematen duk gizon horretaz — esan zuen—. Hobe duk, hire onerako, oker ez egotea. Epaiketarik egingo balitz, litekeena duk hire izena ahotan ibiltzea.

—Esan dudana ziur-ziur nagok —ihardetsi zion Jekyll-ek—. Arrazoi on-onak zeuzkat hori baieztatzeko, ixilean ere inori eman ezin dizkiodan arrazoiak. Bazegok gauza bat, ordea, hire aholkua behar duena. Eskutitz bat heldu zaidak eta dudamudatan nabilek poliziarri erakutsi behar diodan ala ez. Hire esku utzi nahi nitek, Utterson. Zuhurtasunez jokatuko duala ziur nagok.

—Hyde atxilotzeko balio lezakeela uste al duk? —galde egin zion abokatuak.

—Ez —erantzun zion solaskideak—. Egia esan, ez diat axolarik bat ere zer gerta dakioken Hyde-ri. Niri dagokidanez, hilik zegok. Kontu izugarri honek arriskuan jarri dik nire ospea eta horri bakarrik egin zioat kontu.

Utterson-ek lagunaren hitzak hausnartu zituen une batzuz. Lagunaren hitzei zerien

berekoikeria harrigarria zeritzon baina aldi berean lasaitu egiten zuten.

—Bueno —esan zuen azkenik—. Ikus dezagun eskutitz hori.

Mezua oso punta-zorrotzekoa zen idazkera arraroaz idatzita zegoen, eta Edward Hyde-ren sinadura zeraman. Labur esanda hauxe zioen: ongile izan zuen Jekyll doktoreak berarekin izandako eskuzabaltasun ugariei ordain kazkarra eman ziela, bere segurtasunaz kezkatu beharrik ez zeukala —ihes egiteko baliabideak baitzituen— eta baliabide horietaz erabat fidaturik zegoela. Abokatuari eskutitza gustatu zitzaion. Hark uste baino are itxura hobea ematen zion zerakutsan hurkotasanak, eta lehengo susmoak zirela eta bere burua gaitzetsi egin zuen.

—Gutunazala ba al duk?

—Erre egin diat —ihardetsi zion Jekyll-ek— zertan ari ninduan konturatu gabe. Ez zekarrean, berriz, zigilurik. Mezulari batek ekarri zidak.

—Eskutitza gorde al zezakeat guztionetaz lasai pentsatzeko? —galde egin zion Utterson-ek.

—Hik nire orde z erabakitzea nahi nikek; nire buruarekiko konfidantza galdurik zeukat, erabat.

—Pentsatuko diat —erantzun zuen abokatuak—. Azken gauza bat. Hire desagerpenari dagokionez, Hyde-ek iradoki zizkian testamentuaren hitzak?

Doktorea konortea galtzeko zorian egon zen. Ezpainak hertsiki itxi eta baietz eman zuen aditzera buruaz.

—Banekian —esan zuen Utterson-ek—. Gizon horrek hi hiltzeko asmoa zeukan. Txiripaz atera haiz onik.

—Gauza oso garrantzitsua ikasi diat esperientzia honetatik —erantzun zuen doktoreak handikiro—. Lezio ederra izan duk. Jainkoarren, Utterson, nolako lezioa ikasi dudan!

Hori esanda, begitartea eskuetan ezkutatu zuen une batez.

Aterako bidez, abokatua gelditu egin zen Poole-rekin hitz aspertu bat izateko.

—Barkatu —esan zion—, eskutitzen bat ekarri al dute gaur? Mezularia nolakoa zen deskribatuko hidake?

Pool-ek, ordea, erantzun zion ziur zegoela ez zela ezer iritsi, ez postarik ez beste ezer.

—Propaganda orri batzuk besterik ez ditugu jaso gaur —erantsi zuen.

Poole-ren erantzunak bisitariaren beldurra berritu zuen. Gutuna laborategiko atetik iritsi zela garbi zegoen. Bazitekeen kabinetean idatzia izatea; eta hala izanez gero, beste modu batez eta arreta handiagoz irakurri beharko luke. Etxetik atera zenean, prentsa saltzaileak espaloietatik aldarrika ari ziren: "Edizio berezia! Parlamentukidea, hilketa izugarri baten biktima!" Lagunaren aldeko heriotza-predikua bezalakoa zen, eta hura entzuterakoan, eskandaluak dudarik gabe sortaraziko zuen iskanbilaren biktima bihurtuko ez ote zen Jekyll-en ospe ona galdetu zion beldurrez Utterson-ek bere buruari. Hartu beharreko erabakia, dena-delakoa izan, zail-zaila zen, eta orokorki, bere buruarekin asko ohi zuen gizona izan arren, egoera hartan aholku eske jotzeko premia sentitu zuen, argi eta garbi ez ordea, zeharka baizik.

Handik gutxira, bere etxeko sutegiaren albo batean eserita zegoen; Guest abokatuorde jauna ere bere aurrean eserita zegoelarik. Eta bi gizonen artean, sutondotik tarte kalkulatu batera, ardandegiko iluntasunean luzaro egondako botila bat ardo urtetsua.

Lainoak lurrun lokartuen artean murgilarazten zuen Londres hiria, eta faroletako argiek errubi antzean dirdiratzten zuten. Bizitzak hiri gainetik zihoazen hodei lodi eta itogarrietan

zehir zirkulatzen jarraitzen zuen, haize gogorrak ateratako burrunba bihozgabea izango balitz bezala. Sutondoak, ordea, gela alaitzen zuen. Botila barruko azidoak deskonposaturik zeuden urte luzeak zirela eta, denboraren poderioz kolorgabeturik (beiraduren koloreak barreiatzen diren bezala, maldetako mahastietan islaturiko udazken arratsaldeetako zohardura argitara noiz aterako eta Londresko lainoak noiz sakabanatuko zain). Ia konturatu gabe, abokatua amore ematen joan zen. Berak nahi adina ezkututzen ote zion inoiz ez zekien ziur. Guest behin baino gehiagotan joana zen doktoarearen etxera negozio kontuak zirela eta. Poole ezagutzen zuenez, etxe hartan Hyde-k beti izan zuen abegi onaren berri izango zuen eta auskalo zer-nolako ondorioak aterata zeuzkan. Ez al zen normala, beraz, misterio hura argitzen zuen eskutitza berak ere irakurtzea? Eta batez ere, Guest oso grafologiazalea zenez gero, bere iritzia eskatuko balio, ez ote litzaioke legezkoa eta jatorra irudituko? Gainera, bere enplegatua aholkuzale amorratua zen. Dokumentua irakurtzekotan, harrigarria izango litzateke ohar bat edo beste aipatuko ez balu, eta haren iritzia entzun eta gero Utterson Jn.ak errazago erabaki ahalko luke.

—Tristea da Sir Danwers-i gertatutakoa —
esan zuen hizketari hasiera emateko.

—Bai, jauna, arrazoi osoa daukazu. Guztiok jarri gaitu oso haserre —erantzun zuen Guest-ek—. Gizon horrek burutik jota egon behar du, noski.

—Puntu horri buruz, hain zuzen, jakin nahi nuke zure iritzia zein den —esan zuen Utterson-ek—. Bere eskuz idatzitako eskutitz bat daukat. Baina zu eta bion artean geratu behar du kontu honek. Egia esan, ez dakit zer egin. Kasurik hoberenean, oso-oso kontu zakarra da. Hementxe duzu. Noski, jakingura handia piztuko dizu: hiltzaile baten autografoa da eta.

Guest-en begiek dirdira egin zuten eta berehala hasi zen dokumentua aztertzen grina handiz.

—Ez jauna —esan zuen—. Ez dago erotuta. Idazkera, berriz, benetan arraroa da.

Une hartan, morroia sartu zen eskutitz bat eskuan zekarrela.

—Jekyll doktorearena al da, jauna? —galdetu zuen abokatuordeak—. Bere idazkera ezagutzea iruditu zait. Kontu pribatua al da, Utterson jauna?

—Afaltzeko gonbidapena baino ez da. Zergatik? Ikusi nahi al duzu?

—Une batez soilik. Mila esker, jauna.

Enplegatuak bi orriak elkarren parean jarri eta edukiak zehatz-mehatz gonbaratu zituen.

—Mila esker —esan zuen azkenik, bi mezuak Utterson-i berriro emanez—. Interesgarria da, oso.

—Zergatik alderatu dituzu, Guest? — galdetu zion azkenik.

—Esango dizut, jauna —erantzun zuen abokatuordeak—. Elkarren antza da benetan sinestezina. Bi idazkerak berdin-berdinak dira zentzu askotan. Idazkeraren zeharkakotasuna besterik ez da bestelakoa.

—Hori bai harrigarria! —hots egin zuen Utterson-ek.

—Zuk zeuk esan duzun bezala, benetan harrigarria da —ihardetsi zion Guest-ek.

—Eskutitz honetaz nik ez nuke beste inorekin hitz egingo, benetan —esan zuen Utterson Jn.ak.

—Ez horixe, jauna —erantzun zion abokatuordeak—. Ulertzen dut.

Gau hartan, bakarrik gelditu bezain laster, Utterson Jn.ak eskutitza diru kutxan gorde eta egun hartaz geroztik hantxe bertan iraun zuen.

—Jainkoarren! —hots egin zuen bere artean—. Henry Jekyll-ek eskutitza faltsutzea ere hiltzaile bat salbatzeko!

Eta odola izoztu zitzaion zainetan.

LANYON DOKTOREAREN ABENTURA HARRIGARRIA

Denbora igaro zen. Hiltzailearen atxiloketa erraz zezakeen edozein informazioren truke milaka libra eskaini ziren sari moduan, Sir Danvers-en heriotza herriari egindako iraintzat jo baitzuten, baina Hyde Jn.ak poliziari ihes egiten zion inoiz izan ez balitz bezala. Hark burututako txarkeria behienak jakitera eman zituzten eta guzti-guztiak ziren higuingarriak. Bihozgabe eta zakar jokatzan zuen gizon haren krudeltasunari, bizimodu gaiztoari, lagun xelebreei eta —agi zenez— beti inguratu zitzaion gorrotoari buruzko istorioak ahoz aho zebiltzan. Goiz hartan Sohoko etxetik atera zenetik, bazirudien ke bihurtuta zegoela, eta poliki-poliki, egunak joan egunak etorri, Utterson Jn. behinolako susmo txarrez ahaztu eta barruko bakea berreskuratzen hasi zen. Hyde Jn.aren desagertpena zen —hark ulertzen zuenez— Sir Danvers-en heriotzak kobratutako ez-nolanahiko ordaina. Itzal ezezkorra joanda, bizitza berri bati ekin zion Jekyll-ek. Bakarrik egoteari utzi zion, lagun zaharrekin zeukan adiskidetasunari berriz ere heldu zion, mahaikide eta mahaiburu izan zen osteraren ere, eta eginiko ongiengatik beti aski ezaguna izan bazen ere, orain aldiz bere debozioagatik nabarmendu zen. Oso lanpeturik zegoen beti, etxetik askotan ateratzen zen eta ongia egiten zuen. Oharkabea, aurpegia gazteagoa eta dirdiratsua goa jarri zitzaion

—zerbaitetarako balio zuela konturatu bailitzan—, eta bi hilabetez bizi izan zen bakean.

Urtarrillaren 8an, Utterson Jn.ak berean bazkaldu zuen, lagun batzuk bazkaltiar zituela. Lanyon ere hantxe izan zen eta mahaiburuaren begiak batengandik beste batengana zihoazen garai zaharretan bezalaxe, hiru lagunak ogi eta jaki zirenean. 13an eta 14an, ordea, abokatuak ez zuen etxean abegirik izan.

—Doktoreak bakarka egon nahi du —esan zuen Pool-ek—. Ez du inor hartzen.

15ean berriro saiatu zen, eta berriro ukatu zioten sarrera. Azken bi hilabeteetan laguna ia egunero ikustera ohitu zenez, bakardadera itzultzeak ezin tristeago utzi zuen. Bostgarren gauean Guest gonbidatu zuen afaltzera, eta seigarrenean Lanyon ikustera joan zen.

Han behintzat atea zabaldu zioten; barruan sartu bezain laster, ordea, lagunaren begitarteak jasandako aldaketaz ohartzera, harri eta zur gelditu zen. Aurpegiak berak inprimaturik zeukan —irakurtzen oso erraza zenez— bere heriotza-epaia. Garai batean beti gorriturik azaltzen zen gizonak orain, ordea, zur-zurbil agertzen zen, mehe-meheturik, burusoilagoa eta zaharragoa dudarik gabe; eta, hala ere, gorputz gainbehera horren ezaugarriak ez ziren abokatuaren aditasuna beregatu zutenak, lagunaren begirada baizik, bere

keinuek erro sakoneko beldur-ikara adierazten baitzuten. Doktorea heriotzaren beldur egon zitekeela ez zen oso sinesgarria; dena den, horixe izan zen Utterson Jn.ak pentsatu zuen lehen gauza.

"Bai", esan zuen bere artean, "sendagilea duk. Bazekik zein egoeratan dagoen; bazekik oso egun gutxi geratzen zaizkiola. Eta jakiteak gaintitu egiten dik".

Dena den, Utterson-ek lagunaren itxura txarra aipatu zuenean, Lanyon-ek gizontasun handiz aitortu zion hiltzera galdurik zegoela.

—Jaso berri dudan kolpetik ez nauk sekula bizkortuko —esan zuen—. Aste bakanak, besterik ez. Bizitza atsegina izan duk. Bizitzeari plazerra atera zioat, bai jauna. Gustatu egin zaidak. Batzuetan, halere, den-dena jakingo bagenu, mundu honetatik alde egiteak ez ligukeela axola handirik emango pentsatzen diat.

—Jekyll ere gaixo zegok —esan zion Utterson-ek—. Harekin egon al haiz?

Lanyon-ek begitartez aldatu eta esku dardartsu bat jaso zuen.

—Ez diat Jekyll berriro ikusi ez harekin berriro hitz egin nahi —esan zuen ozenki eta ahotsa hautsi batez—. Pertsona horrekin kito egin diat

sekulako, eta arren! nire aurrean ez aipatu berriro bere izena. Niri dagokidanez, hilda zegok.

—Jainkoak gorde gaitzala! —esan zuen Utterson-ek. Eta gero, isilune luze baten ondoren— : Zerbait egin al dezaket higitik? —galdetu zion—. Aspalditik ezagutzen diagu elkar, Lanyon, eta ez gaudek lagun berriak egiteko sasoian.

—Ezin duk ezer egin —erantzun zion Lanyon-ek—. Hoa eta galdetu berari.

—Ez naik ikusi nahi —esan zuen abokatuak.

—Ez zaidak bat ere harritzen —izan zen erantzuna—. Egunen batean, Utterson, ni hil eta gero, gertatutakoaren berri zehatza izango duk agian. Orain, ezina zaidak hiri ezer esatea. Bien bitartean, beste zerbaiti buruz hitz egiteko gauza baldin bahaiz, orduan gera hadi eta hitz egin dezagun, arren; baina kontu madarikatu honi berriro ekiten badiok, orduan hoa hemendik, ezin baitiat jasan.

Etxera heldu bezain laster, Utterson-ek idazmahaiaren aurrean eseri eta Jekyll-i eskutitz bat idatzi zion bien arteko urruntzea zela-eta kexaka, eta Lanyon-ekin kitto egin izanaren arrazoiez galde eginez. Hurrengo egunean, batzuetan hunkigarriak eta beste batzuetan goibel eta misteriotsoak ziren hitzekin idatzitako eskutitz luzea iritsi zitzaion.

Lanyon-ekin kitto egin izana, agi zenez, konponezina zen.

"Ez zioat errua botatzen gure lagun zaharrari", esaten zuen Jekyll-ek idazkian, "baina elkar ikusi behar ez dugulako ustearekin bat natorrek. Hemendik aurrera, erabateko bakardadean bizi izatea erabakita zeukat. Nire etxeko atea batzuetan ixten bazaik, ez duk nire adiskidetasuna dudan jarri behar, ezta harridurarik erakutsi ere. Utzi egin behar didak nire bide goibel honetan barneratzen. Aipatzerik ere ez daukadan zigorra ezarri zioat neure buruari. Izan ere, bekatzailerik handiena ez ezik, damudunik handiena ere banaiz. Lurrean hain sufrimendu handia eta hain ikara handia zegoenik ez nian nik susmatzen. Gauza bat baino ezin duk egin, Utterson: nire isiltasunari begirune izan".

Abokatua harri eta zur geratu zen. Hyde-ren eragin gaiztoa ordurako desagerturik zegoen. Jekyll-ek betiko lanei eta betiko lagunei heldua zien berriro. Zuela astebete bakarrik, zahartzaro alai eta itzaltsu baten promesa zela eta, den-denak bazirudien irri egiten ziola; orain, ordea, adiskidetasuna, barruko bakea, bizitza ere deuseztaturik zeuzkan. Hain azkar gertatutako aldaketa ustekabe eta erabatekoa zorotasunaren adierazgarri bazen ere, Lanyon-en hitzez eta jarreraz oroiturik, arrazoia are sakonagoa izan behar zuela deliberatu zuen.

Astebete igarota, Lanyon doktorea larriki gaixotu eta hamabost bat egunen buruan hil egin zen. Ehorzketa baino ordu batzuk geroago, Utterson, gertaera zela eta oso-oso hunkituta, etxeko langelan sartu eta, argimutil goibelaren argitan, bere adiskidea zenak idatzitako eta beronen zigiluaz lakratutako eskutitzaren aurrean eseri zen. Honako haitz hauek irakur zitezkeen: "Isilpekoa. G.J. Utterson-entzat soil-soilik, eta bera ni baino lehenago hiltzekotan, inork irakurri gabe suntsitua izan dadin". Abokatuari beldurra eman zion edukia irakurtzeak: "Lagun bat lurperatu diat gaur", esan zuen bere artean. "Agiri honek ez ote dit beste lagun bat kenduko?"

Berehala, ordea, beldurrari judaskeria iritzi eta zigilua puskatu zuen. Gutunazalaren barruan beste zigilu bat aurkitu zuen, honako inskripzio hau zeramana: "Ez ireki Henry Jekyll hil edo desagertu arte". Utterson-ek nekez sinets zezakeen bere begiek irakurri zutena. Bai, "desagertu" hitza aipatzen zuen. Jekyll Dk.ak aspaldian egindako testamentuan bezala, hemen ere Henry Jekyll-en izena eta balizko desagertpena loturik agertzen ziren. Testamentuan, ordea, Hyde delako gizonaren eragin txarragatik sortua zen hitz hori; kasu hartan arrazoa oso garbia eta gaiztoa zen. Lanyon-en beraren eskuz idatzita, ordea, zer-nolako esangura izan lezake? Jakinmin handi-handi baten pean erori zen abokatu; debekuari ez entzunarena egin eta misterioaren sakontasunera iristeko desioa zeukan. Baina lanbidearen etikaz eta lagun zenari zor zion

zintzotasunaz oroiturik, biak ezinbesteko betebehartzat jotzen zituenez, agiria hartu eta diru kutzako bazterrik ezkutuenean zokoratu zuen.

Gauza bat da, ordea, jakinmina itotzea eta beste bat hura bentzitzea. Beraz, baliteke baten batek bere buruari galde egitea Utterson-ek oraindik desiratzen ote zuen adiskidearen laguntasuna lehengo irrika berberaz. Egia esan, lagunari buruz pentsatu ohi zuen txeraz, baina baita artegatasun eta beldur txundigarri ere. Laguna ikustera joaten bazen ere, poza hartzen zuen atea ixten zitzaionean. Ate ondoan eta haize agerian, hiriko zaratak inguratzen zitzaizkiola, bihotz-bihotzez nahiago zuen Poole-rekin hitz egitea etxe hartan sartzea baino, zeren-eta, lagunaren etxean borondatezko esklabutasunaren lekuko izateaz gain, preso xeblearekin ere eseri beharko baitzukeen hizketan.

Bestalde, Poole-k sekula ez zion berri atseginik kontatzen. Doktoreak —itxura zenez— babesa bilatzen zuen, inoiz ez bezala, laborategiko goiko solairuaren kabinetean, non zenbait gau ere igarotzen baitzituen. Triste zegoen, hitz gutxiko bihurtu zen eta jadanik ez zuen irakurtzen. Zerbaitek kezka ematen ziola zirudien. Utterson halako txostenak entzutera ohitzen joan zen eta ikustaldi hauek gero eta bakanagoak egin ziren.

LEIHOAREN GERTAERA

Igande batean, Utterson jauna Enfield jaunarekin ohiko ibilalditxoan egiten ari zela, kalekka hartatik berriro igaro eta, ate aurretik pasatzerakoan, hari so gelditu ziren biak.

—Bueno —esan zuen Enfiel Jn.ak—, kontuak behintzat kito egin dik. Sekula ez diagu Hyde berriz ere ikusiko.

—Hala espero diat —esan zuen Utterson-ek—. Inoiz esan diat behin harekin suertatu nintzela eta aipatu zenidan biguina berbera sentitu nuela?

—Ezina duk bera ikustea biguinik sentitu gabe —erantzun zion Enfield-ek. Harira datorkigunez gero, lelotzat hartuko ninduan, ez bainintzen konturatu horixe zela Jekyll-en etxearen atzeko atzeko atea.

—Hik ere jakin duk azkenik, ezta? —esan zuen Utterson-ek. Gauzak horrela, uste diat patioan sar gintezkeela eta leihotara begirada bat eman. Egia esan, Jekyll gizarajoak kezkatuak. Kanean izanda ere, lagun bat izateak on handia egin liezaiokeela uste diat.

Patioan hotz handia eta hezetasun pittin bat egiten zuen. Goiz iritsitako ilunabarreko argiak

den-dena betetzen zuen; izan ere, zeruan, nahiko urrun, arratsaldeko eguzkiak oraindik ere dirdiratzen baitzuen. Hiru leihoetatik erdikoa erdi irekita zegoen, eta hortik hurbil, agerian, preso kontsolaezin batena zirudien aurpegi ezin tristeagoa zeukalarik, Utterson-ek Jekyll doktorea ikusi zuen.

—Zer moduz, Jekyll? —oihukatu zuen—. Hobeto egongo haizela espero diat.

—Lur jota nagok, Utterson —ihardetsi zion doktoreak goibel—. Lur jota. Zorionez, nireak egingo dik laster.

—Noski, beti etxean sartuta —esan zuen abokatuak—. Kalera atera eta odolaren zirkulazioa pizka bat bizkortu beharko huke, Enfield eta biok egiten dugun bezala. (Nire lehengusua, Enfield jauna, Jekyll doktorea). Goazemak; har ezak kapela eta hator gurekin nagiak botatzera.

—Oso jatorra haiz —esan zuen besteak zizpuruz—. Ez dakik nola gustatuko litzaidakeen, baina ezinezkoa duk. Ez nauk ausartzen. Pozten nauk hi ikustez, Utterson. Poz handia hartzen diat beti. Enfield jn.ari eta hiri igotzeko esango nizueke, baina hau ez duk toki egokia bisitariak hartzeko.

—Orduan —esan zuen gogo onez abokatuak—, egin dezakegun gauzarik hoberena duk gauden tokian gelditu eta bertotik hitz egitea.

—Horixe duk hain zuzen hiri proposatzekotan neukana —erantzun zion doktoreak, irriz. Hitz horiek jaulki bezain laster, ordea, irria aurpegitik ezabatu zitzaion, eta patioko bi jaunen zainetako odola izoztu zuten begitarte izugarri bat eta etsimen higuigarri bat margotu zitzaizkion begitartean Jekyll-i. Aierua baino ez zuten ikusi, leioa berehalaxe itxi zelako. Aski eta sobera izan zen baina. Itzuli eta kalera atera ziren hitzik esan gabe. Oraindik isilik iragan zuten kaleka, eta ondoko kalera —non bizi-zantzurik bazegoen, igandea izan arren— soilik iritsi zirenean, Utterson Jn.ak burua bueltatu eta kideari begiratu zion. Bi gizonak zurbil eginda zeuden eta euren begiek islatzen zuten izuaren erantzuna kausitu zuten batak bestearen begietan.

—Urriki bedi gutaz Jainkoa! —hots egin zuen Utterson jn.ak.

Enfield jn.ak seriotasun handiz baieztu baino ez zuen egin eta isilik ibiltzen segitu zuen.

AZKEN GAUA

Gau batean, afaldu ondoren, Utterson jauna sutondoan eserita zegoela, Poole-ren ikustaldia ustekabean hartu zuen.

—Hara, Poole! Nolatan ba hi hemendik? — hots egin zuen.

Eta gero, hura zehatz-mehatz aztertu eta erantsi egin zuen:

—Zer gertatzen da? Gaixorik al dago doktorea?

—Utterson Jn. —esan zuen etxezainak—. Gauza oso arraroak ari dira gertatzen.

—Eseri eta hartu nirekin kopa bat ardo — esan zuen abokatuak—. Ikus dezagun. Jarri eroso eta esadak argi eta garbi zer nahi duan.

—Zuk badakizu nolakoa den doktorea, jauna —ihardetsi zion Poole-k—. Batzuetan, mundutik bakartu egiten da. Bueno ba, berriro sartu da bere langelan eta oraingoan ez dit adar onik ematen, jauna. Jainkoak barka nazan, baina ez dit adar onik ematen. Utterson jauna, berdur naiz.

—Ea, ea, motel —esan zuen abokatuak—. Izan hadi pitin bat argiagoa. Zeren beldur haiz?

—Zerbaiten beldur naiz joan den asteaz geroztik —erantzun zion Pool-ek galderari jaramonik egin gabe—, eta ezin izango dut luzaro jasan.

Gizonaren itxurak hitz horiek zeharo baieztatzen zituen. Oso taxu txarra zeukan eta, bere beldurra aurreneko aldiz iragarri zuen unean izan ezik, abokatuari ez zion behin ere aurrez aurre begiratu. Aulkian eserita zegoen, oraindik dastaturik gabe zeukan kopa bat bete ardo belauetan jarrita eta begirada gelako bazter batean galduta.

—Ezin izango dut luzaro jasan —esan zuen berriz.

—Ea, ea —esan zuen abokatuak—. Ikusten dudanez, kezkatuak egoteko arrazoiren bat badaukak, Poole. Oso larria den zerbait gertatzen ari dela konturatzen nauk. Saiatu arazoa adierazten.

—Guztionetan kontu zikinen bat dagoela uste dut —esan zuen Poole-k erlats.

—Kontu zikinen bat! —hots egin zuen abokatuak asalduz, eta beraz, nahiko haserre—. Zer esan nahi duk horrekin? zertaz ari haiz?

—Ez naiz zuri azaltzera ausartzen, jauna —
izan zen erantzuna—. Nirekin etorriko bazina,
zeure begiekin ikusiko zenuke.

Erantzun moduan, Utterson zutik jarri eta
berokia eta kapela hartu zituen; hala ere,
etxezainaren begitartean islatutako hobealdi
harrigarriaz ohartzeko astia izan zuen; eta bere
harridura areagotu egin zen, berari jarraitzeko jaiki
zenean ardoa dastaturik ez zeukala egiaztatu ahal
izan zuelarik.

Gau zakar, hotza zen, bazihoan martxo
hilabeteari zegokion legez. Ilargi zurbila zeruan
ahoz gora zetzan, haizeak eratzan balu bezala, kotoi
antzeko hodei arinek zeharkatutako itsaso batean
galduta. Haizeak elkarrizketa eragotzi eta odola
biltzen zuen bi gizonen aurpegietan. Haizeak
oinezkoak uxatuta zituela zirudien, kalea benetan
mortua baitzegoen, eta Utterson Jn.ak bere buruari
esan zion sekula ez zuela auzo hura hain jenderik
gabe ikusi. Berak nahiago izango zukeen hala izan
ez balitz. Bere bizitza osoan inoiz ez zuen sentitu
beste pertsona batzuk ikusi eta ukitzeko desira
biziagorik, zeren-eta, desira hura menpean izatea
lortzeko gogor ahalegindu arren, hondamen
saihestezin bat iragartzen zion barruko susmo
antzeko zerbait barruntatzen baitzuen.

Plazara iritsi zirenean, haizea eta hautsa
jaun eta jabe ziren, eta lorategiko zuhaitz meheek
sarrerako atesarea astintzen zuten zartailuak

bailiran. Poole-k, bere laguntzailearengandik urrats batera edo bira, bide erdian gelditu eta, hozmin handia egiten bazuen ere, kapela kendu eta bekokia estaltzen zion perla antzeko izerdia xukatu zuen sudurzapi gorri batez, eta izerdi hura, zango luzean etorriak baziren ere, ez zen ahaleginaren ondorioa izan, gogor atsekabetuta zeukan larriminarena baizik, begitartea zuri-zuri baitzeukan, eta hitz egiten zuenean erlats eta ahotsa hautsita egiten zuen.

—Bueno —esan zuen—. Iritsi egin gara. Jainkoak nahi dezala ezer txarrik gertatu ez izatea.

—Hala izan bedi, Poole —esan zuen abokatuak.

Une baten ondoren, etxearen aurrean, etxezainak zuhurtasunez hots egin zuen. Atea segurtasun kateak uzten zuen guztia zabaldu eta ahots batek galde egin zuen barnealdetik:

—Hi heu al haiz, Poole?

—Ez izan beldur —esan zuen honek—. Zabaldu atea.

Bizitasun handiz argiturik zegoen egongelara igaro ziren. Sua piztuta zegoen eta zerbitzari guztiak bilduta zeuden sutondo inguruan, gizonak eta emakumeak, artalde moduan pilatuta. Utterson jn. ikusterakoan, neskamea zotinka hasi

zen nahigabe handiz, eta sukaldaria Utterson jn.aren gana lehiaz hurbildu zen, hura besarkatu nahi balu bezala, eta zera oihukatzen:

—Jainkoak gorde gaitzala! Utterson jaun berbera da!

—Zer gertatzen da? zer egiten duzue hemen? —esan zuen abokatuak gogo txarrez—. Oso arauz kanpoko zeritzoat guztioni. Zuen nagusiari ez zaiok bat ere gustatuko hau dena.

—Beldur dira —esan zuen Poole-k.

Jarraian gertatutako isilunean inork ez zuen protestarik egin. Neskamea izan ezik, ostera ere negarrez hasi baitzen ozenki.

—Isil hadi —esan zion Poole-k oso-osozakar, erabat urduri baitzegoen.

Edonola ere, neskamearen zotin ustekabea entzun bezain laster, hurbilenik zeukaten ate alderantz hasi ziren korrika denak, aurpegietan ikara islatzen zitzaiea.

—Eta orain —jarraitu zuen etxezainak pintxeari zuzenduz— ekarri kandela bat eta amai dezagun kontu honekin behin-betiko.

Jarraian, Utterson jaunari eskatu zion berarekin joateko; eta atzeko lorategiraino gidatu zuen.

—Arren, jauna —esan zuen—. Sar zaitetz ahalik eta ixilenik. Entzun behar duzu baina ez dizute entzun behar. Oroitz zaitetz gero: doktoreak barrura sartzea eskatuko balizu, ez egin horrelakorik.

Azken hitz hauek hain harri eta zur utzi zuten Utterson jauna, ezen, oreka galtzeko zorian egon baitzen. Baina, odol hotza berreskuraturik, etxezainari jarraitu zion lorategiko eraikineraino. Flaskoz eta kaxoiz betetako ebakuntza-gela zeharkatu eta eskaillerako oinera iritsi ziren. Han, Poole-k keinu bat egin zion isilik eta adi egon zedin; orduan berak, kandela lurrean utzita eta ahalik eta adorerik handiena bilduz, harmailak igo eta kabineteko atearen feldro gorrizkoan jo zuen badaezpadako eskuaz.

—Utterson Jn.ak ikusi nahi zaitu, jauna —esan zuen. Eta hitz egin ahala, abokatuari berriro ere keinu bat egin zion hurbil zedin.

Ahots zorrotz batek erantzun zuen barrutik:

—Esaiok ezina zaidala une honetan berarekin biltzea.

—Mila esker, jauna —esan zuen Poole-ek ahotsean arrakasta nabari zitzaiola, eta argimutilla eskuan hartuz, Utterson berriro gidatu zuen, lorategian zehar, sukaldetzarreraino, non sua itzalita baitzegoen eta labezomorroak zoruan han-hemenka zebiltzan euren gogara.

—Jauna —esan zuen Utterson-i zuzen begiraturaz—, hori al zen gure nagusiaren ahotsa?

—Oso aldaturik zegoela iruditu zaidak —ihardetsi zion etxezainari zur-zurbil eginda, baina begirada itzultzen ziola.

—Aldaturik? Bai, halaxe uste dut nik —esan zuen Poole-k—. Etxe honetan hogeituzerbitzatu ondoren, nagusiaren ahotsa nahasteko gauza naizela uste ote duzu? Ez jauna, nagusia hil dute. Orain dela zortzi egun hil zuten, Jainkoarekin otoizka entzun genionean; eta haren ordeztan zergatik dagoen hor jakiteko, zerura zuzendu beharko ginatke argitasun eske, Utterson jauna.

—Oso istorio arraroa duk, Poole. Zentzugabea dela esango nitek —esan zuen Utterson jaunak hatz punta bati kosk eginez—. Demagun hik pentsatutakoa gertatu dela; demagun, bai, esan dezagun argi eta garbi Jekyll hil dutela. Zerk bultza lekake hiltzailea hilketaren tokian gelditzera? Taiugabea duk. Ez dik zentzurik.

—Utterson jauna, gizon konbentzigaitza zara, baina lortuko dut; ikusiko duzu —esan zuen Poole-k—. Joan den astean (jakinaren gainean jarri behar zaitut eta), kabinete horretan bizi den gizona, edo izanak izan, berak nahi duen moduan lortu ezin dudan sendagai baten eske aritu zen gau eta egun oihuka. Batzuetan, eskailerako zoruan uzten zuen paper batean idatzi ohi zituen bere mandatuak. Ba, horixe da joan den astetik ikusi dudan gauza bakarra: paperak eta paperak, ate bat itxita eta kabinet ondoan guk geuk utzitako bandexak janariarekin, eta hark sartzen ditu barrura inork ikusten ez duenean. Egunero, eta egunean bi edota hiru alditan ere, aginduak eta kexak entzun ditut eta handika saltzen duten hiriko botika guztietara bidali nau ahalik eta azkarren. Eskatzen zidana ekartzen nion bakoitzean, beste paper batekin erantzuten zidan esanez droga berriro itzultzeko, ez baitzen purua, eta jarraian beste botika batera bidaltzen ninduen. Sendagai horren premia handia du, jauna, berak jakingo du zertarako.

—Ba al duk horietariko paperen bat? —esan zuen Utterson jaunak.

Poole-k eskua poltsikoan sartu eta nota zimur bat eman zion abokatuari, eta honek argitarantz makurtuta irakurri egin zuen. Honako hau zioen: "Jekyll doktoreak Maw jaunei agur egiten die. Ziurtasun oso-osoa dauka eskatutako produktuaren azken sorta ez dela purua; eta ondorioz, ez du balio bete behar zuen helbururako.

18... urtean, aipatutako produktuaren kopuru handi bat erosi zien Jekyll doktoreak Maw jaunei. Arren eskatzen dizuet, salgai artetik arretarik handienaz bila dezazuen zeuen biltegieta lehengai sorta hartatik zerbait geratuko balitzaizue, eta hala izatekotan, ahalik eta luzapenik txikienaz bidal diezaiozuen. Salneurriak ez luke inolako garrantzirik izango. Hamaika aldiz esanda ere, Jekyll doktorearentzat honek izan lezakeen garrantzia ez nuke gehiegitzerik izango". Hitzak txukun-txukun idatzita zeuden honaino; ustekabea, ordea, zain-dardarak jota-edo, honako hitz hauek zirriboratu zituen Jekyll doktoreak: "Bila ezazue sorta hura, arren! arren!"

—Oso mezu bitxia duk —esan zuen Utterson jaunak. Eta gero, ustekabea, erantsi zuen: Zergatik zegoen irekita guttuna?

—Maw-en enplegatua sutan jarri zen, jauna, eta aurpegira bota zidan zaborra balitz bezala —erantzun zuen Poole-k.

—Hark berak idatzi du, zalantzarik gabe —jarraitu zuen abokatuak.

—Halaxe iruditu zitzaidan neuri ere —esan zuen etxezainak haserre samar. Eta gero, ahotsa ahulduz, jarraitu zuen: Zer axola du idazkerak? Ikusi egin dut.

—Ikusi duzula? —errepikatu zuen Utterson jaunak—. Eta?

—Bueno, jauna, hauxe gertatu zen —esan zuen Poole-k—. Lorategitik sartu nintzen laborategiko eraikin barrura. Agi zenez, bere kabinetetik isilka-misilka atera zen sendagai baten edo auskalo zeren bila, kabineteko atea zabalik baitzegoen; eta ebakuntza gela barrenean zebilen, kaxa artetik bilaka. Minutu batez baino ikusi ez banuen ere, ilea laztu zitzaidan kirikino arantzeak bailiran. Jauna, nire nagusia baldin bazen, zergatik ezkututzen zuen aurpegia mozorro baten atzean? Doktorea baldin bazen, zergatik egin zuen deiadar arraten modura? zergatik egin zidan ihes? Haren zerbitzaria izan naiz urte luzeetan. Eta gero...

Etxezainak etenaldi bat egin eta esku bat pasatu zuen aurpegitik.

—Zertzeladak benetan harrigarriak dituk —esan zuen Utterson jaunak—, baina nik uste diat orain badakidala zer gertatu den. Hire nagusiak, Poole, argi dago gaixotasun izugarriren bat harrapatu duela, oinaze ematen duten eta aldi batean desitxuratzen duten gaixotasun horietakoren bat. Horregatik, nire ustez, aldatu zaiok ahotsa, aurpegia ezkututzen dik eta ez dizkik lagunak ikusi nahi; horregatik ibiltzen duk eroa bezala sendagai hori aurkitu nahian, gaxoak sendagai horretan jarri duelako suspertze itxaropenak. Ez ahal da engainaturik ibiliko, gizarajoa! Horixe duk kontu

honi nik ematen diodan adierazpena. Kontu tristea duk, Poole, baita izutzekoa ere. Baina dena duk erraz, berezko eta zentzuzkoa. Beraz, orain arte genituen susmo beldurgarriak baztertu ahal dizkiagu.

—Jauna —esan zuen etxezainak, aurpegia marmola bezain zurbil—, hura ez zen gure nagusia eta egia esaten ari naiz. Gure nagusia —puntu honetara iristean, inguruan begiratu eta xuxurlaka hasi zen— gizon garaia eta soin onekoa zen eta beste hau, ordea, nano hutsa da.

Utterson protesta egiten saiatu zen.

—Jauna —hots egin zuen Poole-k—, hogeituz haren zerbitzari aritu ondoren, nagusia ezagutzen ez dudala uste ote duzu? Kabineteko atetik pasatzerakoan noraino iristen zaion burua ez dakidala uste ote duzu? Goiz-goizetik ikusi dut hogeituz urte luze hauetan. Ez jauna. Mozorratutako gizona ez zen Jekyll doktorea. Jainkoak jakingo du nor zen, baina ez zen bera. Eta ez daukat duda izpirik txikiena: hil egin dute.

—Poole —ihardetsi zion abokatuak—. Hau horrela dela baieztan baduk, orduan nire eginbeharra ziur egotea duk. Hire nagusiaren nahiak errespetatzea zinez desiratzen badut ere, oraindik bizirik dagoela adierazten duen mezu horrek zeharo txunditzen banau ere, ezinbestekoa zeritzoat ate hori botatzeari.

—Hala mintzatzen da, Utterson jauna! —
hots egin zuen etxezainak.

—Eta orain, bigarren dilemari aurre egin
beharko zioagu —jarraitu zuen Utterson-ek— Nork
gingo du?

—Nork? Zuk eta biok, jauna, noski! —izan
zen ezbaigabeko erantzuna.

—Ederki —erantzun zuen abokatuak—, eta
edozer gertatuta ere, behar den guztia egingo diat
errua lepora ez diezazuten.

—Ebakuntza gelan aizkora bat dago —esan
zuen Poole-k—. Zuk, jauna, sukaldeko bertzuna
erabil dezakezu.

Abokatuak tresna zakar eta astuna eskuan
hartu eta airean eragin zuen.

—Konturatzen haiz, Poole —esan zuen
begia jasoz—, zu eta biok arriskuan jartzera
goazela?

—Noski, jauna —erantzun zuen etxezainak.

—Orduan, hobe diagu egia osoa elkarri
esatea —ihardetsi zion Utterson-ek—. Biok
zeuzkaguk gogoan esandakoak baino askoz gauza

gehiago. Hitz egin dezagun zintzotasun osoz. Mozorrotutako gizona ezagutu huen?

—Bueno, dena hain azkar gertatu zen eta izaki hura hain kizkurturik zegoen... Zaila da ziur-ziur egotea —erantzun zion—. Dena den, esan nahi al duzu ea hura Hyde Jn. ote zen? Ba, bai; nik hola uste dut. Gizabete berdinekoa zen, eta ezaugarritzat dituen bizkortasuna eta zalutasuna zituen. Bestalde, nor beste sar zitekeen laborategiko atetik? Ahaztu al zaizu, jauna, hilketa gertatu zenean giltza oraindik bazuela? Baina hau ez da dena. Ez dakit, Utterson jauna, Hyde jauna inoiz ikusi duzun.

—Bai —esan zuen abokatuak—. Harekin hitz egin nian noizbait.

—Orduan, guk bezain ongi jakingo duzu gizon horrengan zerbait arraroa zegoela, higuina eragiten zuen zerbait. Ez dakit oso ondo nola adierazi, baina gizon hura ikusten nuenean, egia esan, hezurmamirainoko hotz ikara sentitzen nuen.

—Neronek ere esperimentatu nian hik adierazitako sentsazio berbera, bai —esan zuen Utterson jaunak.

—Ez naiz harritzen, jauna —erantzun zuen Poole-k—. Mozorrotutako izaki hark gizona baino tximinoa ematen zuen, eta produktu kimikoen kaxa artetik jauzi zuenean eta kabinetean sartu zenean, izotz antzeko zerbait sentitu nuen nire odolaren

barnean iragaiten. Badakit horrek ez duela ezer frogatzen, Utterson jauna. Ikasi nahikoa naiz hori jakiteko; baina gizon bakoitzak bere susmoak ditu eta nik Bibliaren izenean hitz ematen dizut hura Hyde jauna zela.

—Zoritxarrez —esan zuen abokatuak—, arrazoi duala uste diat. Are okerragoa, nik neuk ere pentsatu diat hik pentsatu duana. Harreman horietatik ezin atera ezer onik. Bai, sinesten diat, benetan. Uste diat Harry gaixoa hil dutela; eta uste diat hiltzailea biktimaren gelan ezkutatuta dagoela. Jainkoak zekik zein asmorekin. Bueno, ba, guk geuk mendekatuko diagu. Dei egiok Bradshaw-i.

Lekaiok deiari erantzun zion zur-zurbil eta erabat urduri.

—Egon lasai, Bradshaw —esan zuen abokatuak—. Misterio honek oso urduri jarri zaituzte, baina laster argituko diagu hau guztiau. Poole eta biok kabinetean sartuko gaituk indarrez. Ezer txarrik gertatzekotan, erantzukizun osoa neure gain hartzen diat. Bien bitartean, zerbait edo gaizki aterako balitz edota atzeko atetik ihes egiten norbait saiaturiko balitz, hi eta beste morroi bat laborategiko sarreran zelatan egongo zarete makil banaz armatuta. Hamar minutu emango dizkizuegu zeuen tokian prest egon zaitezten.

Bradshaw atera zenean, abokatuak erlojuari begiratu zion:

—Eta orain, Poole, goazen geure tokira — esan zuen, eta bertzuna besapean lorategira abiatu ziren. Odeiek ilargia estalita zeukaten eta erabateko iluntasuna jaun eta jabe zen. Haizea putzu iluna bezalakoa zen eraikin hartan boladaka eta kolpeka sartzen zen, eta bi gizonak aurreratu ahala, argimutilaren garrak dantzan egiten zuen dardar batez, harik eta laborategiko eraikin barruan sartu ziren arte, non isilik eta zain eseri baitziren. Londresko zarata burrunba solemnea baino ez zen; toki hartan, ordea, kabinetetik zetozen oinhotsek soilik hausten zuten isiltasuna.

—Horrelaxe ematen du egun osoa, jauna — xuxurlatu zuen Poole-k—, baita gauaren parterik handiena ere. Botikatik sendagai berri bat iristen denean, gelditu egiten da. Bihotzeko harrak ez dio atsedean hartzen uzten. Gupidarik gabe isuritako odolaz oroitzen da ematen duen urrats bakoitzean. Entzun ezazu arretaz berriro, egon belarriak tente jarrita, eta esaidazu doktoarearen ibilera ote den.

Oinkadek oso zarata bitxia ateratzen zuten; eta motelak izan arren, zalutasun handikoak ziruditen. Henry Jekyll-en ibilera sendo eta astunarekin alderatuta, baziren —ezin uka— arras bestelakoak. Utterson-ek zizpurua bota zuen.

—Ezer gehiagorik gertatu da? —galdetu zuen.

Poole-k baietz esan zuen.

—Egun batean —esan zuen—, egun batean negarrez entzun nion.

—Negarrez? Zer diok? —oihu egin zuen abokatuak bat-batean ikara handia sentituz.

—Emakumeen edo arima erratuen antzera egiten zuen negar —esan zuen etxezainak—. Tristura handia eragin zidan. Ni neu ere negar egiteko zorian egon nintzen.

Hamar minutuak, berriz, agortuak ziren. Enbalatzeko lasto piloaz estalita zegoen aizkora atera zuen Poole-k; argimutila hurbileko mahai baten gainean utzi zuen, argia eman ziezaien; eta arnasari eutsiz, biak tokira hurbildu ziren, non oin nekagaitzek ibiltzen segitzen baitzuten kabinetean gora eta behera, behera eta gora, gaueko isiltasun minean.

—Jekyll —esan zuen Utterson-ek ozenki—. Zabaldu atea lehenbailehen, otoi.

Jarraian gertatutako isilaldian ez zen erantzunik izan.

—Susmo txarrak ditugula esan behar diat. Ikusi behar haut eta ikusi egingo haut —jarraitu zuen—; onean ez bada, txarrean orduan; hire baimenaz ez bada, indarrez orduan.

—Utterson —esan zuen ahotsak—, Jainkoaren izenean: ez egin hori, arren. Urriki hadi nitaz.

—Hori ez duk Jekyll-en ahotsa, Hyde-rena baizik —oihukatu zuen Utterson-ek—. Bota dezagun atea lurrera, Poole.

Etkezainak aizkorari eragin zion airean. Kolpeak eraiketa osoa kordokatu zuen eta feldro gorritz tapizaturiko atea jauzika atera zen zerrailatik eta erroetatik. Kabinete barrutik izu basati antzeko kurrinka hits bat atera zen. Aizkorak berriro igo eta berriro jo zuen. Ahoa egurrean zorrotz sartu eta ate inguruak karrak egin zuen. Aizkoraz lau aldiz jo arren, atea gogorra eta ondo egina zen. Bostgarren kolpera arte ez zen zerraila lehertu, eta orduan atea ezpalduta erori zen gela barrura, eta tapiz gainean geratu.

Setiatzaileek —sortutako zarataren eta ondorengo isiltasunaren beldur— urrats bat atzera egin eta barrura begiratu zuten. Begi aurrean, lanpara baten argi lasaiak argitzen zuen kabinetea. Sutegi bikaina pindarka ari zen; te ontzian uraren irakidurak bere kanta xaloaren soinua harturik zeukan; kaxoi bat edo bi irekita zeuden, eta idazmahaiaren gainean txukun hedaturiko agiri batzuk ikus zitezkeen; azkenik, te tresneria prest zegoen erabilia izateko. Kimika-gaiez betetako

beirarasengatik izan ez balitz, Londresko gelarik lasaiena eta normalena zela esan zitekeen.

Kabinetaren erdian, minaren minaz okertutako gizon baten gorputza zetzan, eta oraindik pitin bat higitzen zen, espasmodikoki. Behatz punttetan berari hurbildu, gorpuari buelta eman eta Edward Hyde-ren begitartearen aurrean suertatu ziren. Handiegia zetorkion arropa janzten zuen (doktorearen jantzia zen, noski). Aurpegiko giharreak oraindik higitzen zitzaizkion pitin bat, baina biziak alde egina zion. Eta eskuaz oratuta zeukan anpuloagatik eta airean flotatzen zuen almendra usain nabarmenagatik, Utterson-ek suizida baten gorpuaren aurrean zegoela atera zuen ondorioz.

—Beranduegi iritsi gaituk —esan zuen geldiro— salbatzeko edota zigortzeko. Hyde-k zorrak kitatu dizkik eta guri bakarrik falta zaiguk hire nagusiaren gorpua aurkitzea, Poole.

Eraiketa hartako tokirik gehiena ebakuntza gelak betetzen zuen, beheko solairu osoan zehar hedatzen baitzen; eta sabaitik eta kabinetetik argiturik zegoen. Azken honek bigarren etxebizitza osatzen zuen eta lehioak patiora agertzen ziren. Korridore txiki batek ebakuntza gela eta kale itsura irteten zen atea batzen zituen; eta eskailerako bigarren tarteguneari esker, kabinetearekin ere komunikatzen zuen. Guztionetaz gain, zenbait gela ilunek eta soto zabalak ere osatzen zuten eraikina.

Toki guztiak behar bezala arakatuak izan ziren. Begirada bakarra nahikoa izan zen gelak miatzeko, hutsik baitzeuden; eta atean pilaturiko hautsa ikusita, denbora luzea zeramaten itxita, dudarik ez. Sotoa purtzilkeriaz eta huskeriaz beteta zegoen, eta gehienak Jekyll-en aurrean bizi izandako zirujauarenak ziren. Berehala, gelak miatzea alferrikakoa zela konturatu ziren, zeren-eta, atea ireki bezain laster, urte luzez sarrera zigilaturik izan zuten amaraunezko gortina lodiek jauzten baitzieten aurpegira. Inon ere ez zuten Henry Jekyll-en arrastorik aurkitu, ez bizirik ez hilik.

Poole-k oinarekin kolpe batzuk jo zituen korridoreko lauza gainean.

—Hemen egon behar du lurperaturik —esan zuen zorura adi-adi begiraturaz.

—Edo ihes eginda zegok agian —esan zuen Utterson-ek; eta ondoren, kale itsura agertzen zen atea aztertzeraz itzuli zen.

—Ez zirudik luzaroan erabili dutenik —esan zuen abokatuak.

—Erabili? —esan zuen Poole-k oiartzun modura—. Ez zara konturatu hautsita dagoela? Norbaitek hautsi egin du ostiko batez.

—Egia —jarraitu zuen Utterson jaunak—, eta hautsitako tokiak herdoilduta zeudek.

Beldurra begietan nabari zitzaiela, elkarri begiratu zioten.

—Ez diat ezer ulertzen, Poole —esan zuen abokatuak—. Itzul gaitezen kabinetera.

Eskaileratik isilik igo ziren eta gorpuari batzuetan beldurrez begiratzeari utzi ezinez, gela zehatz-mehatz arakatzeari ekin zioten. Esperimentu kimikoren bat burutzeko erabilitako mahai gainean, kristalezko platertxo batzuetan, zuri koloreko gatz pilatxo bana ikusi zuten, doktore gizarajoak amaitzeko astia izan ez zuen esperimenteren baterako prestatuak edo.

—Hauxe da etengabe eskatzen zidan sendagaia —esan zuen Poole-k; eta hitz egin ahala, irakitan zegoen ura ontzitik gainezkatu eta ateratako soinuak zirgit eragin zien bi gizonei.

Ezustekoak sutondora erakarri zituen. Guztiz abegi oneko itxura eskaintzen zuen besaulki bat hurbildua zuen norbaitek sutondora, eta besaulkiaren beso batetik hurbil, te tresneria eta gainerako guztia prest zegoen (azukre koxkorrak ere katilu barruan itxaroten zuen). Apal batean zenbait liburu zeuden eta beste liburu bat, zabalik, te tresneriaren ondoan ikus zitekeen. Utterson harrিতuta gelditu zen doktorearen idazkera erakusten zuen obra hura ikusterakoan, Jekyll-i

bizikiro eder baitzitzaion eta orain hitz gorri zakarrez josita baitzegoen.

Bi gizonek gela arakatzen segitu zuten. Gorputz osoko ispilu baten aurrean gelditu eta ispilu barrenera begiratu zuten bihotz ikara handiz. Halako moldez jarrita zegoen, ezen, sabaian dantzan egiten zuen dirdirapena, armairuetako beira-xafletan hamaika aldiz islatutako sua eta beraien aurpegiak —zurbilak eta izutuak, ispilu barnean agertzen zirenak— besterik ez baitzituena erakusten.

—Gauza oso bitxiak ikusita dauzka ispilu honek, jauna —xuxurlatu zuen Poole-k.

—Gauzarik bitxiena ispilua bera duk, zalantzarik gabe —erantzun zuen abokatuak tonu berean—. Bestela, zertarako nahi zuen Jekyll-ek (izen hau ahozkatzerakoan, isildu egin zen zirgit eginez. Baina berehala, odol hotza berreskuratu eta aurrera jarraitu zuen), zertarako nahi zuen Jekyll-ek ispilu hau?

—Arrazoi duzu, jauna —esan zuen Poole-k.

Gero, idazmahaia arakatu zuen. Agerian, arretaz estaltzen zuten paperen artetik, Jekyll-ek idatzi eta Utterson Jn.ari zuzendutako eskutitz bat aurkitu zuten. Abokatuak kartazala ireki eta beste kartazal txikiago batzuk erori ziren lurrera. Azal honen barruan bazegoen agiri bat eta zuela sei

hilabete Utterson-ek bere lagunari itzulitakoaren hitz berberaz idatzita zegoen (doktorea hilez gero, testamentu eta lagapen akta modura balio behar zuena). Baina Edward Hyde-ren izena irakurri beharrean, abokatuak Gabriel John Utterson izena irakurri zuen ezinesaneko harriduraz. Tapiz gainean zetzan gaizkilearen gorpuari begiratu zion.

—Ez diat tutik ere ulertzen —esan zuen—. Gizon hau hemen izan duk jaun eta jabe azken egunotan. Ez zeukaan ni begiko izateko inolako arrazoirik. Alderantziz, testamentutik kanpo zegoela jakiterakoan tripak jango zizkian eta, dena den, ez dik eskutitza suntsitu.

Hurrengo agiria hartu zuen. Doktorearen eskuaz idatzitako mezu laburra zen eta egun hartaxeko datak ematen zion amaiera lerroari.

—Poole! —oihu egin zuen abokatuak—. Gaur bertan izan duk hemen! Ezina duk hain denbora laburrean haren gorpua desagerraraztea. Bizirik egon daitekek, edota ihes eginda. Baina, zergatik ihes egin...? Eta, hala egitekotan, honi suizidioa irizteko frogarik ba al daukagu? Zuhurtasun handiz jokatu beharra zeukaguk. Zainak ematen zidak hire nagusia kinka oso larrian egon daitekeela.

—Zergatik ez duzu agiria irakurtzen, jauna? —galdetu zuen Poole-k.

—Beldur naizelako —ihardetsi zion abokatuak geldiro—. Jainkoak nahi beza funtsik gabeko beldurra izatea.

Hori esan eta gero, begia agiriari zuzendu eta ondoko hau irakurri zuen:

"Utterson maitea: mezu hau zure eskuetara iristen denerako, desagerturik egongo naiz. Ezina zait zehaztasunak igartzea, baina nagoen kinka larriak hala nola senak argi eta garbi esaten didate amaieratik hurbil nagoela eta laster gertatu behar duela. Lehenengo eta behin, irakur ezazu Lanyon zure eskuetan jartzera zihoan agiria, Lanyon-ek berak gaiztigatu baitzidan; eta gehiagorik jakin nahi izango bazenu, jo ezazu zure lagun ezduinaren eta zorigabearen aitorpena,

Henry Jekyll"

—Hirurgarren agiririk ba al dago? — galdetu zuen Utterson-ek.

—Hementxe duzu, jauna —esan zuen Poole-k, eta toki batzuetan lakraztaturik zegoen tamaina handiko azal bat luzatu zion.

Abokatuak patrikan sartu zuen.

—Nik ez nitek inorekin hitz egingo agiri honi buruz. Hire nagusia ihes eginga edota hilda

balego, haren izen ona behintzat salbatuko geniek. Hamarrak dituk. Etxera joan behar diat hau lasai irakurtzera, baina gauerdia baino lehen itzuliko nauk eta poliziari deituko zioagu.

Euren atzetik laborategiko atea itxiz, atera egin ziren. Eta Utterson jauna egongelako sutondo inguruan morrontza osoa bilduta utzi eta bere langelara itzuli zen bi agiriak irakurtzera, berauei esker espero baitzuen misterioa argitzea.

LANYON DOKTOREAREN KONTAKETA

Urtarrilaren 9an, orain dela lau egun, Henry Jekyll lagunak eta ikaskideak bidalitako eskutitz ziurtatu bat jaso nuen arratsaldeko postan. Horrek erabat harrিতuta utzi ninduen, elkarrekin postaz komunikatzeko ohiturarik ez genuelako. Aurreko gauean, gainera, bera ikusteaz gain, berarekin ere afaldua nuen; beraz, ez zegoen inolako arrazoirik eskutitz ziurtatuaren formaltasuna adierazteko. Eskutitza irakurri ahala, nire harridura areagotzen joan zen, ondoko hau esaten baitzuen:

"18...k
o abenduaren
10ean

Lanyon maitea:

Nire lagun zaharrenetariko bat zara; eta arazo zientifikoan kariaz batzuetan elkarrekin gaizki moldatu bagara ere, ez dut gogoratzen —nire aldetik, behintzat— betidanik batu gaituen begikotasuna hargatik bat ere apaldu denik. Noizbait esan izan bazenit: "Jekyll, nire bizia, nire ohorea, nire zentzua hire beharrean zeudek", nik eskubia emango nukeen zuri laguntzeagatik. Lanyon, nire bizia, nire ohorea, nire zentzua zure beharrean daude. Laguntzen ez badidazu, nireak egingo du. Hitzaurretxo hau irakurri eta gero,

beharbada zerbait lotsagarria eskatzera ez ote noakizun pentsatuko duzu. Juzka ezazu zuk zeuk.

Gaur gauerako izan dezakezun edozein eginbehar mota —izanak izan, enperatriz baten ohantzerara joatea balitz ere— gerorako utz dezazun nahi dut. Har ezazu gurdi bat —zure zalgurdia etxe aurrean egon izan ezik— eta eskutitz honekin zatoz nire etxera. Poole-ri, etxezainari, agindu zehatzak eman dizkiot dagoeneko. Iristen zarenean, bera eta sarrailagile bat izango dituzu zain. Nire kabineteko atea behartuko duzue eta zeu bakarrik sartuko zara; gero, ezkerretara dagoen beirarasa irekiko duzu (E letrarekin seinalaturik dagoena) —sarraila puskatuz, itxita aurkituko bazenu—; eta goitik hasita laugarrena eta behealdetik hirugarrena den kaxoia aterako duzu *dagoen bezalaxe*, hau da, *bere edukin guztiarekin*. Nire kezka hain dira larriak, ezen, argitasunak gaizki eman ote dizkizudan pentsatze hutsak gaixotu egiten nauen. Okertuko banintz ere, aipaturiko kaxoia zein den erraz jakingo duzu edukiagatik: hautsak, anpulo bat eta koaderno bat daude hor barruan.

Kaxoi hori, aurkitu bezalaxe, eramazu Cavendish plazara, arren.

Hauxe da mesedearen lehen parte. Segituan adieraziko dizut bigarrena. Eskutitza irakurri eta gero, nire esanak betetzen badituzu, zurean berriro egongo zara gauerdian baino askoz lehenago. Denbora nahiko utzi nahi nuke, bai

saihestea bai igartzea ezinezkoa den eragozpen horietakoren bat sortuko balitz. Bestalde, eginkizun daukazuna hobe duzu egitea morroitza oheratu ondoren.

Hauxe da, beraz, eskatzen dizudana: gauerdian, kontsulta gelan, zu bakarrik egotea; gero, nire izenean aurkeztuko den gizonari atea ireki eta nire kabinetetik atera ondoren jadanik izango duzun kaxoia berari ematea. Guztiori egiten baduzu, berebiziko mesedea egingo didazu eta nire esker ona izango duzu sekula eta betiko. Bost minutu igaro eta gero, zer gertatzen ari den jakin nahi izango bazenu, aipaturiko ekintzek zer-nolako garrantzia zeukaten ulertu ahal izango duzu. Bestalde, ekintza horietakoren bat —oso harrigarriak iruditu arren— burutu gabe utziko bazenu, kontuan izan lazkiro damutuko litzaizukeela, nire heriotza edota nire zentzumenen hondamena ekarriko baitzenidake.

Nire erregua kontuan hartuko duzula zinez itxaroten badut ere, bihotza larritu eta eskuak dardar egiten dit, zerbait gaizki atera daitekeela pentsatzen dudanean. Toki arraro batean hondatuta nagoela jakin behar duzu (irudimenik zoroenak ezin izango luke asmatu hau bezalako atsekaberik). Nire eskariaz zintzo-zintzo arduratuko zarela jakingo banu, nire kezka iraganaldiko kontua baino ez litzateke izango, kontatzaileak amaitzen duen eta entzuleak ahazten duen istorioarekin

gertatzen den bezala. Har ezazu nire eskaria arretaz,
Lanyon maitea, eta lagunidazu.

Zure adiskidea,

H.J.

Post-data: Baneukan kartazala itxita, beste beldur bat nire espirituaz jabetu denean. Gerta liteke posta berandutzea eta eskutitz hau bihar goizera arte ez iristea. Hala gertatuko balitz, nire Lanyon maitea, egizu eskatzen dizudana ondo datorkizun unean eta egon zaitez nire mezulariaren zain biharko eguerdira arte. Baliteke ordurako beranduegi izatea. Bestalde, nire mandatariaren berri izan gabe gaua igaroko balitz, izan ondo gogoan Henry Jekyll ez duzula sekula berriro ikusiko".

Eskutitza irakurtzen amaitu nuenean, nire adiskidea burutik joanda zegoelako uste sendoa izan arren, egitate hori frogatua izan arte eskatzen zidana egin behar nuela sentitu nuen. Nahaste-borraste guztiari buruzko hitzik bat ere ulertzen ez nuenez, ez neukan horretxen garrantzia juzkatzerik; baina, noski, halako hitzekin idatzitako erreguari ezin nion ezentzunarena egin (erantzukizuna handia baitzen).

Beraz, mahaitik altxatu, gurdi bat hartu eta Jekyll-en etxera abiatu nintzen zuzen-zuzenean. Etxezaina nire zain zegoen. Postarekin batera, hark ere harturik zeukan eskutiz ziurtatu bat argibideekin, eta sarrailagilearen eta arotzaren bila norbait bidali zuen berehala. Bata eta bestea iritsi ziren etxezainak eta biok solasean jarraitzen genuela, eta laurok, gizon bakarra baikinan, ebakuntza gelara jo genuen, ebakuntza gela baitzen Jekyll-en kabinetera iristeko biderik laburrena (dudarik gabe oroituko zarenez). Atea sendoa eta sarraila bikaina ziren. Arotzak haserre esan zigun sarraski handia egingo lukeela, indarra erabiltzen bazuen; eta sarraigilea ernegatzen hasi zen, zain zeukan egitekoaren tamaina ikusterakoan. Zorionez, gizon trebea zen, eta lanari buru-belarri ekin eta bi ordu geroago atea irekita zeukan. E letrarekin seinalaturiko beirarasa ez zegoen giltzaz itxita. Beraz, aipaturiko kaxoia atera eta lastoz betearazi nuen; gero, izara batez estali eta berarekin itzuli nintzen Cavendish plazara.

Han, kaxoiaren edukia arakatu nuen. Hauts poltsatxoak ondotxo eginak zeuden, baina ez botikari profesionalari dagokion arduraz. Beraz, Jekyll-ek berak prestatu zituela pentsatu nuen, eta poltsatxo txiki horietako bat irekitzerakoan, zuri koloreko gatzak baino iruditu ez zitzaizkidanak zeuzkatela konturatu nintzen. Gero, anpulo bati begiratu nion —gutxi gora-behera odol antzeko isurki batez beteta zegoenari eta oso usain sarkorra zerionari; nire aburuz, fosforoz eta eter lurrintsuren

batez osatuta—. Koadernoia, berriz, erabat arrunta zen, eta data batzuk izan ezik, ia ez zeukan beste ezer idatzita. Data horiek bitarte luzea azaltzen zuten; baina ustekabea eta aurreko urteari zegokion data batean eteten zirela ohartu nintzen. Noizean behin, hitz bakarrez adierazita, ohar labur bat agertzen zen dataren ondoan, "bikoitz" hitza ehunka datetan sei edo zazpi bider agertzen zelarik. Behin, zerrenda hasieran, harridura zeinuekin, hauxe esaten zuen: "Porrot hutsa!!!".

Guztiorrek, noski, nire jakinminari eragin zion arren, oso gauza gutxi argitu zidan. Soluzioren bat zeukan anpulua neukan eskuetan, baita — Jekyll-ek egindako hainbat eta hainbat ikerpenekin bezala— baliogarritasunerantz zuzenduta ez zihoazen zenbait isperimenturi buruzko oharrak ere. Halako gauzak etxean izateak, zer-nolako eragina ez ote zuen izango nire kide txoratuaren ohorean, zentzumenean edota bizian? Mezulari moduan bidaltzen zidan gizonak nirera etortzea baldin bazeukan, zergatik ezin zuen berdin-berdin harenera joan? Horrela egiteko eragozpenik baldin bazeukan, zergatik hartu behar nuen nik isilkamisilka gizon hura?

Zenbat eta gogoeta gehiago egin, orduan eta etsituagoa ni, zeren buruzko gaixotasun baten aurrean nengoela pentsatu bainuen, eta izan ere, morroitzari alde egiteko agindu banion ere, pistola bandatu nuen —nire burua defendatzeko beharra iritsiko balitz.

Londresko erlojuetan hamabiak ozta joak zirela, ateko aldabak zarata leun bat atera zuen. Irekitzera joan nintzen, eta atariko habeen artean kikilduta, gizabete motzeko gizon bat kausitu nuen.

—Jekyll doktorearen partez al zatoz? —
galdetu nion.

Keinu herabe batez baietz erantzun zidan eta barrura pasatzea eskatu nionean, plaza ilunerantz soin gainetik begiratu eta orduan sartu zen etxean. Handik hurbil, esku-argia piztuta polizia bat igarotzen ari zen. Iruditu zitzaidanez, polizia ikusterakoan, nire bisitaria asaldatu eta azkar-azkar sartu zen etxe barrura.

Egia esan, zertzelada guztioriek oso adar txarra eman zidaten eta bizikiro argiztaturik zegoen kontsulta gelara atzetik jarraitzen nion bitartean, armaren ipurdiari oratzen nion eskuaz uneoro. Esan dudanez, gizabete motzeko gizasemea zen. Haren aurpegiaren espresio arraroak, gihar eder eta aktiboen eta gorpuzkera itxuraz ahularen arteko konbinazioak eta, batez ere, harengandik hurbil egoteak eragiten zidan ondoez nabarmenak harritu egin ninduten. Nire pultsuaren taupak moteltzeaz gain, bat-bateko hotzikara antzeko zerbait ere eragiten zuen gizon hark. Une hartan, gizonaren izaerari berez zerion higuina zela uste izan nuen, eta sintoma biziak besterik ez ninduten harritu. Ordudanik, ordea, sorburua are sakonagoa zela

sinesteko arrazoi nahikoak kausitu ditut (gizonaren izaeran hain zuzen errotzen diren arrazoiak, gorrotoaren iturburua baino jatorragoa den beste zerbaiti lotuak).

Atalasea zeharkatu zuen uneaz geroztik, jakinmin bizi eta goibela eragiten zidan gizon hura halako moldez jantzita zihoan, ezen, pertsona arruntari barre eragingo baitzioken. Ehun neurrizko eta dotorea izan arren, luze-luze zihoakion edonondik begiratuta ere. Fraken azpikoak biribilkaturik zeramatzan, lurretik arrastaka ez eramateko; jakaren gerria aldaketatik behera erortzen zitzaion eta paparrak besaburuetatik labaintzen zitzaizkion. Oso bitxia iruditu arren, jazkera harrigarriak ez zuen barrerik eragiten. Aitzitik: begi aurrean neukan kreaturaren izaerari berari zerbait ezohiko eta bihurria zeriolako —kitzikatu, txunditu eta higuintzen zuen zerbait—, bereiztasun horrek bazirudien haren nortasunarekin bat egiten zuela, eta halako moldez sendoagotzen zuen, ezen, gizonaren izaerari buruzko eta nortasunari buruzko nire jakinminari hainbat galdera gaineratu baitzitzaizkion: haren jatorria, haren bizitza, haren zoria eta munduan betetzen zuen tokia.

Kontatzea hain denbora luzea kendu didaten gogoeta guztiauek nire burutik desfilatu zuten segundu gutxiren tartean. Kilikadura goibel baten suak bihotza ematen zion nire bisitariari, agerian zegoenez.

—Ekarri al duzu? —oihu egin zuen—. Ekarri al duzu?

Eta haren ezinegonan hain zen bortitza, ezen, nire besoan esku bat jarri eta berau astintzen saiatu zen. Nire zainetan izozturiko taupa antzeko zerbait nabaritu orduko, ordea, urrats bat atzera egin nuen.

—Jauna —esan nion—, ez ahaztu zu ezagutzeko ohorik ez dudala. Eser zaitez, arren.

Eredugarri izan nahian, ni neu ere eseri nintzen neure besaulkian eta edozein gaisorekin hartuko nukeen jarrera hartzen saiatu nintzen —gau beranduak, nindukaten kezkek eta bisitariak eragiten zidan bihotz-ikarak horretarako aukera ematen zidaten neurrian.

—Bihotzez eskatzen dizut barkamena, Lanyon doktorea —ihardetsi zidan jokabidez aldatuz—. Arrazoi osoa duzu. Nire ezinegonak, ordea, gaina hartu dio nire gizabideari. Zure lagunaren kariaz etorri naiz, Henry Jekyll doktorearen kariaz alegia, garrantzi handia daukan mandatu bat dela eta. Azaldu didanez —hemen isilune bat egin, esku bat eztarrira eraman eta garbi-garbi ikusi ahal izan nuenez, itxuraz oso lasai ematen bazuen ere, histeriako krisi bati aurre egiten saiatu zen—. Azaldu didanez —jarraitu zuen—, kaxoi jakin bat omen dago...

Puntu honetara iritsita, neure bisitariaren larritasunaz urrikitu nintzen; baita handituz zihoakidan jakinminaz ere.

—Hortxe duzu, jauna —esan nuen lurlean zetzan kaxoiari erakutsiz, izara batez oraindik estalita baitzegoen mahaiaren atzean.

Jauzi batez hurbildu zitzaion kaxoiari. Gero, bertan gelditu eta esku bat jaso zuen bihotzera. Masailezurak egiten zion dardararen ondorioz, hortzen karraska entzuten nion; eta hain espresio doilorra margotu zitzaion aurpegian, ezen, haren bizi-az eta zentzuaz beldur izan nintzen.

—Lasai zaitetz —esan nion.

Hark irri gaiztoa zuzendu zidan eta, desesperoaren fruitua den ausarkeriaz, izara kendu egin zuen. Kaxoiaren edukia begiz jotzean, aurpegian islatu zitzaion pozak harri eta zur utzi ninduen. Segundu baten ondoren, ahotsa lasaiturik jada, galde egin zidan:

—Ba al duzu edalontzi graduaturik?

Ahalegin bat eginez, besaulkitik jaiki eta eskatutakoa eman nion.

Hark irri batez eskerrak eman zizkidan, tintura gorrixkaren tanta batzuk neurtu eta hauts-neurri txiki-txiki bat erantsi zuen. Hasieran, tintura

gorrixka iluntzen hasi zen; gero, zalapartaz burbuilaka hasi eta, kristalak desegin ahala, lurrin hodeitxoak jaurkitzen hasi zen. Berehala, ia-ia bat-batean, irakinaldia eten egin zen. Eta, piskanaka, purpura ilun kolorekoa zen nahastura berde-urdin bihurtzen joan zen. Bisitariak, pozarren pozez eta aldaketa guztioriei so, irri egin zidan; gero, mahai gainean edalontzia utzi, nigana etorri eta jakinminez begiratu zidan.

—Eta orain —esan zuen—, amai dezagun kontu honekin. Zentzuduna izan nahi al duzu? Besteengandik ikasteko prest al zaude? Edalontzia eskuan harturik eta zuri azalpenik eman gabe alde egingo banu, jakinmina jasateko gauza izango al zinateke? Edo, sentitzen duzun jakinmina handiegia da zuretzat? Erantzun baino lehen, pentsatu ondo, esango didazuna egingo baitut nik, hain zuzen. Alde egin behar dudala erabakitzen baduzu, zauden bezala geratuko zara, ez aberatsagoa ez jakintsuagoa —heriotza arriskuan dagoen adiskideari mesede bat egitea beti aberasgarria izango bada ere, zure espirituarentzat—. Bestelako erabakia hartuko bazenu, berriz, ezagutza-muga berriak eta osperako eta botererako bide berriak zabalduko litzaizkizuke. Hementxe, gela honetxetan, une honetxetan, zure begien aurrean, Deabrua bera ere harrituta utziko zuen miraria ikusiko zenuke.

—Jauna —esan nion lasai nengoen itxurak eginez, oso urduri egon arren—, hitz ilun horiek ez

ditut ulertzen eta guztiorrek nigan sinesgarritasunik eragin ez duela esango banizu, beharbada ez zinateke harrituko. Baina abentura adieragaitz honen bidean urrutiegi heldu naiz eta orain ez dago gelditzerik amaiera ikusi arte.

—Ederki —ihardetsi zion bisitariak—. Lanyon, oroi zaitez egindako zinaz. Ikustera zoazenak gure lanbidearen sekretupean gelditu behar du. Eta orain, iritzirik zekenenak hain luzaro izan dituzun horrek, garrantzi handiko sendakuntzaren existentziari uko egin diozun horrek, jakiturian gaina hartu dizutenen lepotik barre egin duzun horrek: begira ezazu!

Hori esanda, edalontzia ezpaineratu eta edukia zurrutada batean edan zuen. Bat-batean, deiar egin, haren gorputzak behin-edo jira egin, behaztopatu eta ezerezari begira gelditu zen hantxe bertan, begiak odol-gorriturik eta aho zabaletik arnasestuka. Eta begiratzen nion bitartean, itxuraldaketa bat gertatzen ari zitzaiola iruditu zitzaidan. Bat-batean, puzten hasi eta begitartea belztu zitzaion. Gorputz ezaugarriak urtzen eta aldatzen ari zitzaizkiola zirudien. Une baten ondoren, jauzi batez zutik jarri eta hormaren kontra etzan nintzen, beso batez aurpegia estaliz, halako miraritik neure burua babesteko edo (bihotz ikara gorrian murgilduta bainengoen).

—Jainkoarren! Jainkoarren! —errepikatu nuen hamaika bider, zeren-eta, hantxe bertan,

aurre-aurrean, zurbil eta dardarka, konortea erdi galduta eta haztamuka, hilobitik berpiztutako gizonaren parean, Henry Jekyll baitzegoen.

Hurrengo minutuetan esan zizkidanak ez dago idatziz jartzerik. Badakit zer ikusi nuen; badakit zer entzun nuen. Eta ikusitakoaren eta entzundakoaren ondoren, nire espirituak zirgit egin zuen. Dena den, harako ikuspen hura behin desagertuz geroztik, neure buruari galdetzen diot guztiartan sinesten dudan ala ez, eta ez dakit zer erantzun.

Nire bizitza sustraietaraino kordokaturik dago, loak utzi nau eta bihotz-ikarak gau eta egun laguntzen dit. Nire amaiera hurbil dudala uste dut eta, hala ere, sinesgogor hilko naiz. Doilortasun moralari dagokionez, gizon horrek damutubegiekin erakutsi zidan zatarkeriari dagokionez, izuaren izuaz zirgit egin gabe ezin izango nuke guztioni buruz gogoeta egin. Gauza bat baino ez dut esango, Utterson, eta berau (sinesterik izango bazenu) aski eta sobera izango da. Gau hartan nirean sartu zen gizona —Jekyll-ek berak aitortu zidanez—, Edward Hyde izenaz guztiek ezagutzen dutena da: Carew-en hilketagatik herriko bazter guztietan harrapatu nahian dabiltzan berbera.

Hastie Lanyon

GERTATUTAKOA ADIERAZTEN DU HENRY JEKYLL-EK

18... urtean jaio nintzen, aberastasun handiko oinordekoa nintzela eta, jakina denez, errenta bikainez saritua. Izatez lanera makurtua, lagun hurkorik hoberen eta jakintsuen bigiruneaz gozatu nintzen laster asko, eta ondorioz, etorkizun duin eta oparoa igartzen zidan guztiorrek. Egia esan, nire akatsik okerrena pertsona askoren zoriona egin duen nire aldarte on eta artega besterik ez da izan; baina aipaturiko aldarte, denen mirespenaz gozatzeko nire desirarekin eta gizartearen aurrean benazko eta ezohiko planta aurkezteko nire nahiarekin batera eramatea oso zaila egin zitzaidan. Arrazoi honetxegatik, neuzkan atseginkeriak ezkutatu nituen, eta gizona bere inguruan begiratu eta aurrerapenak eta lortutako gizarte maila ebaluatzen hasten deneko gogoeta-urte jakin horietara iritsi nintzenerako, bizitza-bikoiztasun sakon baten eskuetan neukan neure burua utzita. Nik burututako bihurrikeriak zirela eta, gizon asko harro agertuko ziratekeen. Baina nik nire buruari ezarrita nizkion xede gorenak zirela kausa, ia gaixotia zen lotsa jeinuaz juzkatu eta ezkutatu egiten nituen.

Beraz, nire irritsen gehiegikeria izan zen — eta ez nire hobeen tamaina— nintzen bezala egin ninduen eta gizonaren izaera bikoitza osatzen duten ongiaren eta gaizkiaren bi eremuak nire

baitan bereizi zituena —nigan pertsonarik gehienengan baino neurri handiagoan bilakaturik zeudenak—. Nire tokian, erlijioaren funts bera osatzen duen eta sufrimendu iturririk oparoena errepresentatzen duen bizi lege latz horri buruzko gogoetak egin nituen.

Bikoiztasun sakon hau gorabehera, ez nintzen inolaz ere azal hutsekoa, nire bi aurpegiak orobat zinezkoak baitziren. Desohorean eta lotsabidean murgiltzen nintzenean, edota guztien agerian ezagutza sakontzeari eta tristura eta sufrimendua arintzeari ekiten nienean, ni neu nintzen. Eta hauxe gertatu zen: nire ikerlan zientifikoek, mistikarantz eta garrantzi handiko gauzetarantz zuzenduak izanik, nire bi nortasunen arteko gerra iraunkorraren gainean eragina izan eta argi izpi boteretsu bat jaurki zuten. Egunik egun, eta nire adimenaren bi aldeei esker (moralezkoari eta buruzkoari esker, alegia), hondoratze izugarri honetara ekarri nauen erdi aurkikuntza honen egiara hurbilagotzen joan nintzen, hots, gizona ez dela bat, bi baizik. Eta bi diot zeren nire ezaugupideak ez baitira iritsi puntu honetaz harantzago. Beste batzuk etorriko dira, nik baino ezaupide handiagoak izango dituztenak; eta, azkenik, gizona nortasun ugariko, desberdineko eta askeko multzotzat hartua izango da.

Nik, nire aldetik, nire bizitzako izatasuna zela eta, norabide bakarrerantz, bakar-bakarrerantz, egin nuen aurrera. Moral arloan eta neure baitan ere

izan zen non ikasi bainuen gizonaren bikoiztasun egiazkoa eta primitiboa ezagutzen. Nire baitakoak zeuzkan bi izaerak aldi berean neureak zirela esan zitekeela ikusi nuen oso garbi, zeren bi-biak osorik neureak ziren; eta aspaldiko egunetatik, nire aurkikuntza zientifikoei esker halako mirari baten aukerarik urrutiena susmatzen hasi baino are lehenagotik ere, atseginez pentsatzeari ekin nion, amets bati laztanka arituko bainintzan, bi elementu horiek bereizteari buruz. Bakoitzak, esaten nion nire buruari, nortasun desberdin batean egotea izango balu, orain soportaezin egiten zaidanaz gabeturik geratuko litzateke nire bizitza. Doilorrak bere bidea jarrai lezake anaia zorrotzaren asmoetatik eta bihotz-zimikoetatik aske. Zintzoak, berriz, perfekzio bidean indartsu eta ziurtasunez egin lezake aurrera on eginetan atsedean hartzen eta barruan daraman ezezagun doilorrak egin liezaizkiokeen zorigaitzak direla-eta bere burua arriskuan jarri gabe. Kontzientziaren hilzoriko erraietan kontrako bi adar horiek betiko batuta egotea, bizki etsai horiek atsedean gabe elkarrekin borrokan etengabe aritzea madarikazioa zen gizateriarentzat. Nolatan bana zitezkeen beraz?

Gogoeta horietan honaino iritsita nengoela, laborategiko mahaitik abiatutako errainu bat hasi zen zeruertzea argitzen. Ustekabean —sekula irudikatuko ez den argitasunik handienarekin— materiagabekotasun dardartsuaz, gure haragizko jantzia den gorputz honen hutsaltasun iragazkorraz eta itxuraz hain sendoa den nire gorputz honetaz

ohartu nintzen. Agente jakin batzuek — leihotzarretako gortinei haizeak eragiten dien modu berean— jantzi hori aldatu eta erauzteko gaitasuna zutela kausicu nuen. Nire aitorpenaren alor zientifikoan ez dut sartu nahi bi arrazoirengatik. Lehena, ikasi dudalako gizon bakoitzak bizitzan zehar bere patua jasan behar duela eta zama hori bere lepotik kentzen saiatzen denean are pisu handiagoaz eta bitxiagoaz berriro gainera erortzen zaiola. Bigarrena, nire kontaketak argi eta garbi utziko duenez, nire aurkikuntzak —zoritzarrez— osatugabe daudelako. Aski izango da honako hau esatea: nire espiritua osatzen duten zenbait botereren jarioduratik nire gorputz materiala bereizten ikasi ez ezik, edabe bat asmatzea ere lortu nuen eta, edabe honen bidez, euren nagusitasuna erantzi nien eta niretzat oso normala zen beste irudi eta itxura batek ordezkatu zuen nire eitea —nire espirituaren osagairik zakarrenen espresioa eratu eta beronen zigilua zeramalarik.

Teoria hau bidean jarri baino lehen, dudamudatan ibili nintzen luzaro. Banekien heriotza-arriskuan jarriko nintzatekeela, zeren-eta nortasunaren zoko bera kordokatu eta menperatzeko botere itzela zeukan droga gauza baitzen nik aldatu nahi nuen materiagabeko bizitegia erabat hutseratzeko. Inguruabarretan edota dosian gertatutako okerrik txikiena nahikoa izango litzateke hura gerta zedin. Halako esperimendu paregabe bat egiteko tentazioak, ordea, nire beldurrei gaina hartu zien azkenik. Tindagaia

aspalditik prestatuak neukan. Berehala, handikako gai kimikoak saltzen zituen enpresa bati gatz jakin bateko kopuru handia erosi nion, nire aurreko esperimenduei esker ba bainekien behar nuen azken osagarria zela, eta madarikatzen dudan gaueko ordu berandutuan elementuak nahastu, irakitan eta ketsu probeta barruan ikusi eta irakidura barreiatu zenean, bihotza hartu eta edabea edan nuen.

Kordokaldi bihotz-urragarriak, hezur karraskak eta goragale hilgarriak sentitu nituen; baita ez jaiotzaren ez heriotzaren zauriek gainditzetik daukaten espiritu ikara ere. Gero, hilzoria barreiatzen hasi eta nire senera etorri nintzen, gaixotasun larri batetik atera banintz bezala nire burua sentituz. Nire sentsazioetan zerbait berria, ezinesanezko berria zen zerbait zegoen eta, berritasuna bera ere ezinesanezko atsegina zela iruditzen zitzaidan. Gazteago, arinago, gorputzez zorientsuagoa sentitu nintzen. Neure barruan sutasun oldartsu bat esperimendatzen nuen; grina gaiztoei emandako lasterketa bailitzan, nire irudimenetik segidako irudipen sentsualak igortzen ziren; nire betebeharreko lotura guztiak ezerestatzen zirela iruditzen zitzaidan, eta espiritu askatasun ezezagun bat (xaloa ez baina) indarrez sartu zen nire izaera osoan. Bizitza berri horretatik arnasterakoan, zitalagoa, hamaika aldiz zitalagoa nintzela jakin nuen, eta nire jatorrizko gaitzari saldutako esklabua baino ez nintzela. Pozkarioz saltoka hasteko zorian nengoela, besoak hedatu

nituen eta nire gizabetea txikiagoturik neukala konturatu nintzen.

Egun haietan ez nuen ispilurik kabinetean. Nire ondoan dagoena, lerrook idazten ari naizen bitartean, eraldakuntza hauek zirela-eta ekarri nuen geroago. Gaua, ordea, goiza bihurturik zegoen; goizaldetik, lehen hain beltza zen harexetik, argia urratzear zegoen; nire etxeko guztiak loan murgilduta zeuden; beraz, esperantzaz eta arrakastaz beteta nengoenez, nire itxura berripean logelaraino iristen arriskatzea erabaki nuen. Lorategia zeharkatu nuen; bertan, izarrek goi-goitik behatu zidaten, nire aburuz, harriduraz. Mundua mundu denetik, euren zaintza logabeen ikusten zuten mota horretako lehenbiziko izakia nintzen. Korridoreak ibili nituen neronen bizitokian arrotza sentituz, eta nire gelara iristerakoan, Edward Hyderen irudiari so egin nion lehen aldiz.

Segituan teoria mailan soilik hitz egingo dut, esanez dakidana ez ezik, ditekeena dela uste dudana ere bai. Nire izanaren alde gaiztoa —bestea hutseratzeko botereduna— alde zintzoa bezain bilakatuta ez zegoen, azken alde hau baztertu berria baitzuen. Hura oso gauza normala zen; azken finean, ahaleginari, bertuteari eta ukoari eskainitako bizitza izan nuenez, beste aldeia ez nuen hainbeste erabili eta ondorioz ez neukan hain ahituta. Horregatik, pentsatu nuen, Edward Hyde Henry Jekyll baino motzago, meheago eta gazteagoa zen. Baten aurpegian ongiak dirdiratzten

zuen bitartean, bestearen begitartean gaizkia idatzita zegoen argi eta garbi. Gaizkiak (oraindik gizonaren alderdi hilkortzat jo behar dudana) desitxuratze eta endekatze aztarnak utzita zeuzkan gorputz hartan. Eta, hala ere, ispiluaren kristalezko xaflan islatutako sasijainko itsusi hura ikusi nuenean, ez nuen higuinik sentitu, pozkario handia baizik. Hura ere neu nintzen eta. Berezkoa eta gizatiarra iruditu zitzaidan. Nire ustez, ordurako nirea deitzeko ohitutako aurpegi akastun eta zatituari iritzi nion nire espirituaren irudi fidel, zuzen eta sinplea. Eta horretan ez nembilen oker. Egiaztatu dudanez, Edward Hyde-ren itxura janzten nuenean inor ezin zitzaidan hurbildu bere haragian ikara sentitu gabe. Horren arrazoia, nik uste, elkarrekin topatutako gizaki guztiok garen ongiaren eta gaizkiaren arteko nahasketan datza, eta Edward Hyde —munduko gizonen artean bakarra— gaizkia baino ez zen.

Ispiluan ez nion nire buruari begiratu une batez baizik. Orain, bigarren esperimentu erabakiorrarekin saiatu behar nuen. Nire nortasuna betiko galduta ote neukan jakitea falta zitzaidan, eta hala izanez gero, jadanik nirea izango ez zen etxe hartatik ihes egin beharko nuke egunsentian baino lehen. Beraz, arin onean kabinetera itzuli, nahastura berriro prestatu, edan, banaketaren minak bigarren aldiz pairatu eta nire senera etorri nintzen Henry Jekyll-en nortasuna, gizabetea eta aurpegia berreskuratuta.

Gau hartan, zorigaiztoko bidegurutze batera heldu nintzen. Aurkikuntzari espiritu zabalagoz aurre egin izan banio, esperimentuaren arriskua hartu izan banu asmo urrikaltsuek edo bihotz handiagokoek bultzatuta, dena oso bestelakoa izango zatekeen, eta deabruaren ordeztu aingerua aterako zatekeen jaiotze eta heriotza hilzoriko haietatik. Edabe hark ez zeukan bereizteko ahalmenik. Ez zen deabruzkoa ez jainkozkoa. Presondegiko ateak irekitzen zituen, besterik ez, eta Philippi-ko presoak bezala, atxilotuta zegoenak ihes egiten zuen kanpora. Nire bertutea loak hartzen zuen eragin horren pean, artean nire doilorkeria —nire handigurari esker zelatan zirauena— aukeraz azkar profitatu zen Edward Hyde brastakoan azaleratzeko. Beraz, nortasun eta itxura banarekin amaitu banuen ere, bata gaizkiaz osaturik zegoen goitik behera, eta besteak Henry Jekyll —osagai inkongruentea, zeinaren aldakuntza eta hobekuntza aspalditik ematen baintuen alferrikakotzat— izaten jarraitzen zuen. Emandako urratsa, beraz, nigan zegoen okerrenaren aldekoa izan zen, dudarik gabe.

Egun haietan, ikasteari loturiko bizitza lehorrarekiko sentitzen nuen ezinikusia menperatzea ez neukan lortuta. Aldarte alai eta lasaia erakusten jarraitzen banuen ere, nire plazerrak (kasurik hoberenean) bat ere duinak ez zirenez eta oso ezaguna eta errespetagarria nintzenez, halako kontraesan bat gero eta jasangaitzagoa egiten zitzaidan. Bestalde,

helduarora hurbiltzen joateak nire egoera okerragotu baino ez zuen egiten. Alde horretatik zirikatu ninduen, beraz, nire botere berriak, beronen esklabu bihurtu nintzen arte. Kopa hustu, irakasle ospetsuaren gorputza utzi eta, beroki lodia izango bailitzan, Edward Hyde-ren itxura jantzi besterik ez nuen egin behar. Ideia honen aurrean — garai hartan barregarria irizten banion ere— irri egin nuen eta ardurarik handienaz prestatu nuen dena. Sohoko etxea akuran hartu eta altzariz hornitu nuen (poliziak Hyde-ri jarraitu zion etxea) eta oso zuhurra eta oso arretatsua ez izatearen ospea zuen andre bat hartu nuen giltzari. Nire etxean, handik aurrera, Hyde delako jauna eskubide eta askatasun guztiez gozatuko litzatekeela igarri nien zerbitzariei, eta inolako ezuste txarrik ez izateko, neurean aurkeztu eta nire bigarren itxurapean ohiko bisitari bilakatu nintzen. Gero, hainbeste "baina" jarri zenizkion testamentuari hitzak jarri nizkion; beraz, Jekyll-en itxura jantzen nuen bitartean, ezer gertatuko balitzait, Hyderean aterpea bila nezakeen nire aberastasuna alde baterra utzi beharrik izan gabe; eta orduan, zentzu guztietan neure burua ondo babestuta sentituz, nire egoerak eskaintzen zidan askatasun bitxiaz gozaten hasi nintzen.

Gaizkileei lana eman dieten gizonen berri izan dugu, beraien orde z hilketak buru zitzaten; horrela, euren ospe ona ez zuten arriskuan jartzen eta ez zitzaien inolako kalterik gertatzen. Neu izan naiz hori atsegin hutsez egin duen lehena. Itzal

handiz jendaurrean nire burua aurkeztu eta une bat geroxeago, eskola-ume baten antzera, jantzia erantzi eta askatasunerantz buruz jaurki ahal izan den lehendabizikoa izan naiz. Nire mantu sarkaitzez estalita, segurtasuna erabatekoa zen niretzat. Izan ere ez nintzen. Nire laborategiko atea zeharkatu, beti prest neukan edabea segundu batean edo bitan nahastu, hustu eta, zena zela nik egindakoa, Edward Hyde desagertu egiten zen arnasak ispiluan utzitako zirkulua bezalaxe. Haren orde, kabinetean argia pizten, Henry Jekyll egongo zen, susmoen lepotik barre egitea zeukan gizona.

Esan dudanez, gisa horretan lehiak bilatzen nituen plazerrak ezduinak ziren. Ez dute hitz gogorragorik merezi. Hyde-ren eskuetan, ordea, laster okagarri bihurtuko ziren. Gaueko ibilalditxoetatik itzultzen nintzenean, beste ni-aren bihurrikeriaz harritzen nintzen askotan. Neronen espirituaren sakontasunetik ateratako nire senide hau —atsegin bila bidali nuena— benetan izaki doilorra eta bilaua zen. Haren ekintza eta pentsamendu guztiak bere baitan biltzen ziren, lagun hurkoen oinazeak sortzen zion atseginetik edaten zuen egarri basatiaz eta zekena zen harrizko gizona bailitzan. Batzuetan, Henry Jekyll-ek izu-ikaraz begiratzen zien Edward Hyde-ren ekintzei; egoerak, ordea, lege arruntetatik hain urrun zegoenez, kontzientziaren boterea biguntzen zuen maltzurki. Azken buruan, erruduna Hyde beste inor ez zen. Jekyll ez zen okerragoa esnatzen zenean

edota itxuraz kaltegabe zirauten ondasunak berreskuratzen zituenean. Beste batzuetan, posible zenean, Hyde-k ekarritako kalteak azkartzen zen ordaintzera. Eta horrela, piskanaka-piskanaka, barreneko harra lotan gelditzen joan zitzaion.

Parte hartu nituen zitalkeriei buruzko xehetasunak emateko desirarik ez dut (orain ere ez baitut onartzen beraietan parte hartzerik izan nuenik); nire zigorra iragarri zuten oharrak eta honaino iristeko zeintzuk ziren nik emandako urratsak adierazi besterik ez dut nahi. Egun batean ustekabeko bat gertatu zen, eta garrantzi handiko ondoriorik ekarri ez zidanez, aipatu baino ez dut egingo. Krudelkeria batek, neskato bat biktimatzat izan zuena, lehengo egunean zure senide bezala ezagutu nuen ibiltariaren haserrea erakarri zidan nire aurka. Neskatoaren sendagileak eta familiak berari lagundu zioten. Nire biziaz beldur izan nintzen uneak izan ziren haiek, eta azkenik, pertsona haien bidezko haserrea baretzeko asmoz, Edward Hyde-k bere etxeko ateraino eramanez eta Henry Jekyll-en izenean sinatutako txekete batekin ordaindu behar izan nien. Gerokoan holakorik berriro gerta ez zedin, Edward Hyde-ren izenean kontu bat ireki nuen beste banketxe batean eta, idazkera aldatuz eta nire bikoitzarentzako sinadura eskuratu ostean, patuaren menetik kanpo nengoela pentsatu nuen.

Danvers jaunaren hilketari baino bi hilabete lehenago, nire ibilalditxo haietako batetik oso

berandu etxeratu eta, biharamunean, oso sentsazio bitxia nuela, esnatu egin nintzen. Alferrik begiratu nuen inguruan; alferrik ikusi nituen nire altzari bikainak eta nire logelaren sabai altua; alferrik ezagutu nituen oheko gortinen marrazkia eta kaobazko habeen zurlana. Nire barruan zerbaitek segitzen zuen niri esaten ez nengoela nengoen tokian, egon uste nuen tokian esnatua ez nintzela, Edward Hyde-ren itxurapean lo egin ohi nuen Sohoko gela txikian baizik. Irri egin nuen, eta nire metodologia psikologikoa erabiliz, ilusio hori sortzen zuten elementuak ikertzen hasi nintzen. Eta halaxe egin ahala, lo arin batean murgiltzen nintzen aldika. Kontu horrekin niharduen beraz, eta ustekabean, erdi itzarrita nengoen une batean, begirada zuzendu nion nire eskuetako bati. Henry Jekyll-enak (sarritan ohartu zarenez) medikuntzako profesionalari dagozkion eskuak dira bai eran bai tamainan: handiak, sendoak, zuriak eta neurri onekoak. Baina Londresko goizaren argitan alde hartan ikusi nuen eskua, bururdiaren gainean erdi itxita zeutzan eskua mehe, zaintsu, latz, zurbiltasun hauskarazkoa zen, eta ile usuz estalita zegoen. Edward Hyde-ren eskua zen.

Uste dut hari begira minutu erdiz edo iraun nuela, harridurak sortutako ikara batean murgilduta. Berehala, nire bularrean izua esnatu zen txindata hotsak bezain hondagarri eta ustekabea. Ohetik jauzi eta ispilurantz egin nuen korrika.

Nire begiek ikusi zutenaren aurrean, odola piskanaka isurki izoztua bihurtu zitzaidan. Bai. Oheratu nintzenean, Henry Jekyll nintzen; baina esnatzean, Edward Hyde nintzen berriro. "Zer adierazpen du honek?", galdetu nion nire buruari. Eta gero, hotzikaraz: "Nola sendatzen da?" Goiza aurreratu samar zegoen; morroitzia lanean ari zen eta nire sendagai guztiak kabinetean zeuden. Nengoen tokitik bertara iritsi ahal izateko (izuak elbarrituta ninduela erantsi behar dut) bi eskailburu jaitsi, korridore bat zeharkatu, lorategian sartu eta ebakuntza gela iragan behar nuen. Begitartea estal nezake, baina... zertarako balioko luke horrek nire gizabete txikia ezkutatzerik ez baneukan? Orduantxe, hain zuzen, gogoratu zitzaidan — atsedean sentsazio itzelaz— zerbitzariak nire bigarren ni-aren joan-etorrietara ohituta zeudela. Handiegi egokitzen zitzaidan jantzia ahalik eta hoberen soinekotu, Bradshaw-ekin suertatu (halako orduan eta hain arraro jantzita ni ikusterakoan, niri begira gelditu eta urrats bat atzera eman zuena), etxe osoa zeharkatu, eta hamar bat minutu igarota, Jekyll doktorea bere ohiko itxura berreskuratuta eta jangelako mahaian eserita zegoen, beltzuri eta gosaltiar itxurak egiteko prest.

Jateko gogo urria neukan, arrazoizkoa denez. Ezuste adierazgaitz hori, nire borondatearen aurka gertatutako itxura aldatze hori, nire zigorraren seinaleztat jo nuen (Babiloniako murraren hatzarekin bezala). Beraz, nire izate bikoitzaren ahalbide eta zertzeladei buruzko

gogoetak egiten hasi nintzen inoiz baino serioagoki. Beste nortasuna barrutik ateratzeko boterea askotan erabilia nuen azken aldian. Azken boladan ere iruditua zitzaidan Hyde-ren gorputza lehen baino altuago eta sendoagoa zela, eta haren itxurapean nengoenean, nire odola indar handiagoz zeriola. Eta susmatzen hasi nintzen, ezen, egoera hori luzatzekotan, nire izatearen oreka betiko aldatzeko arriskuan nengoela; eta nahita aldatzeko boterea gal nezakeela eta Edward Hyde-ren nortasuna sekulako nire bihur litekeela ere pentsatu nuen. Edabearen boterea ez zen beti berdina. Behinola, nire esperimentuen hasieran, erabat huts egin zidan. Orduz geroztik, dosia bikoiztu edota hirukoizteko beharrean egon nintzen behin baino gehiagotan (nire bizirako arrisku handiz). Aldi bakan horiek duda-izpi bakarra jaurki zuten ordura arte hain arrakastatsua izandako esperimentuari buruz. Geroago, goiz hartako ezustearen argitan, konturatzen hasi nintzen, ezen, hasieran Jekyll-en gorputzaz libratzea zailena izan arren, aspaldion arazoa bestelakotzen hasia zela. Bazirudien arazoa honako honetan zetzala: nire lehendabiziko eta jatorrizko nortasunaren gaineko botorea galdu eta, egunak joan egunak etorri, bigarren nortasunarekin —okerrenarekin— elkartzen nindoan gero eta estuago.

Bietako bat aukeratu behar nuela ohartu nintzen. Biek oroitzapen amankomunak bazeuzkaten ere, gainerako gaitasunak desberdinkiro banatuak gelditzen ziren beraien

artean. Jekyll-ek (konposatu bat zenez gero) Hyde-ren abenturak prestatu eta erdibanatzen zituen, nahiz mugarik gabeko pozaz nahiz beldur zuhurrez. Hyde-ri, ordea, bost axola ematen zion Jekyll-ek; gehienez jota, Jekyll-ez oroitzen zen bere jazarleengandik ezkututzen duen harpeaz bide lapurra oroitzen den modu berean. Jekyll guraso bat bezain axolaturik agertzen zen; Hyde, ordea, semea baino ezaxolatiagoa. Jekyll-ekin erabat elkartzeak jadanik asentaturik neuzkan plazer lizunei betiko uko egitea esan nahi zuen. Hyde-ren eskuetan nire burua jartzeak, berriz, nire asmoei eta kezkei betiko uko egitea eta bat-batean eta sekulako mesprezatua izatea eta lagunik gabe gelditzea esan nahi zuen. Aukerari, beharbada, berdintsu iritziko diozu, baina oraindik bazen beste aukera bat, balantzaren platertxoan jartzekoa, zeren-eta ukoaren suan bere burua erretzen Jekyll-ek sufrituko zuen bitartean, Hyde-k ez lioke garrantzirik emango galdutakoari. Nire zertzeladak oso bitxiak izan arren, aukera honen egitamua gizona bera bezain zaharra eta arrunta da. Tentaldiak eta beldurraldiak dira bekatari guztien zoria erabakitzen dutenak, eta halaxe gertatu zitzaidan neuri ere, gizaki gehienei gertatzen zaien bezala, hots, nire nortasunik hoberena aukeratu eta geroago nire erabakiari eusteko indarrrik ez nuen izan.

Bai, doktore tristea eta heldua aukeratu nuen, adiskidez inguratua eta esperantza zintzoak zeuzkana. Askatasunari, bigarren gaztetasunari, arinkerari, oldar bortitzei eta Hyde-ren

mozorropean gozatutako atsegin sekretuei uko egin nien ganoraz. Baliteke, ordea, ezagueragabeko gibelasmo ezkutuz eginiko aukera izatea, ez bainuen Sohoko etxea utzi, ez bainituen Edward Hyde-ren arropak ere suntsitu, haren armairuaren barruan zintzilik iraun zutela baizik. Hala ere, bi hilabetez zintzo jokatu nuen nire erabakiari dagokionez, lehenago sekula egin ez nuen bizitza benazkoa egin nuen eta kontzientzia garbiak ematen dituen ordainez gozatu nintzen. Denbora aurreratu ahala, ordea, beldur horietaz ahazten hasi nintzen, eta barrenak zuzentzen zizkidan laudorio hitzetara halako moldez ohitu nintzen, ezen, hitz balakagarriei ez nien atsegin irizten; desirak eta irrikak ni oinazeztatzen hasi ziren euren askatasuna berreskuratu nahian (Hyde barruan baineraman borrokan) eta, azkenik, gogo-ahulaldi batean, edabe askatzailea nahastu eta zurrutada batean edan nuen berriro.

Pentsatzekoa denez, mozorkortiak bere keriarri buzko gogoetak egiten dituenean, bere soraiokeria basatiak sortzen dizkion arriskuek ez dute berarengan inolako eraginik bostehun aldietatik kasu bakar batean ere. Modu berean, neuk ere ez nuen kontuan hartu —nire egoerari buruz askotan pentsatu arren— Edward Hyde-ren ezaugarri nagusiak erabateko soraiokeria morala eta gaizkirako joera zentzugabea zirela. Eta hala ere, biak izan ziren nire zigorraren eragile. Nire baitan zegoen deabrua hain luzaro egon zen kartzelan sartuta ezen kartzelatik atera zen orroaka. Edabea

husten ari nintzela, gaizkirako zeukan joera lehen baino gogorragoa, burugabeagoa zela konturatu nintzen. Oker ez banago, horixe izan zen nire espirituan egonezin-ekaitza iratzarri zuena, eta horregatik entzun nituen nire zorigaiztoko biktimaren hitz gizabidetsuak halako amorruz. Jainkoa lekuko aldarrikatu nahi nuke ondoko hau: moral aldetik osasuntsua izango zen gizon batek ere ezin izango luke halako hilketarik burutu hain arrazoi nimiñoagatik, eta haur gaixo batek bere jostailua puska dezakeen zentzugabekeria berberaz eman nituen kolpeak. Oreka bat ematen duten jiteak —jite horiei esker gutariko gaiztoena ere tentaldi artetik ibil daiteke-eta gutxieneko segurtasunaz— erantzi nituen borondate osoz. Nire kasuan, tentaldia —arina izanik ere— eroraldia esan nahi zuen nahitaez.

Berehala, gaizkiaren espiritua nire baitan itzarri zen haserre biziz. Kolpe bakoitzean zoramen izugarria aurkiturik, gorputz babesgabea elbarritu egin nuen pozkario handiz. Eta nekatzen hasi nintzenean, nire eldarnioa puntu gorenera iritsi eta bat-bateko izu-ikara batek beretu zidan bihotza. Lainoa aienatu egin zen. Nire bizitza hondamendira zigortuta ikusi eta nire gehiegikerien eszenatokiari ihes egin nion poz-pozik eta aldi berean dardarka. Gaiztakeriekiko gosea akuilatu eta baretu ondoren, bizitzari nion maitasuna ezin suminduago geratu zen.

Sohoko etxera korrika egin, eta nire segurtasuna areagotzeko asmoz, agiri guztiak suntsitu nituen. Kale argiek argizaturiko kaleetara berriro atera nintzanean, une hartaraxe arte menperatzen ninduten bikoiztasun sentsazio berberak neuzkan. Eta nire hilketaz jostaturik eta halako ideiak gogoan edukita ere, mendekatzailearen urratsak entzuteko beldur nintzen. Hyde-k, irri bat ezpainenetan, edabea nahastu eta bere biktimari topa egin zion kopa edan aurretik; itxuraldaketaren minak oraindik aienatuta ez zeudela, Henry Jekyll-ek —bihotz zimikoak bihotzean eta esker oneko negarrak begietan— belauniko erori eta bere esku elkartuak altxatu zituen Jainkoarengana. Tolerantziaren errezela erabat urraturik zegoen. Neure bizitza ikusi nuen bere osotasunean, nire haurtzaroko egunetatik azaldu zitzaidan, aitaren eskutik nenbilenetik; nire lanbideari dagozkion nekeetan azaldu zitzaidan eta, irrealtasun sentsazio berberarekin, gau hartako bihotz ikarara itzultzen nintzen behin eta berriro. Ia-ia oihuka hasi nintzen. Oroimenak nire aurka jaurkitzen zizkidan irudiak eta zaratak uxatzen saiatu nintzen negarrez eta otoizka, baina otoitz baten eta hurrengo otoitzaren artean nire gaiztakeriaren begitarteitsuak jarraitzen zuen nire espiritura agertzen. Poliki-poliki, ordea, bihotz zimiko zahar guztiak hiltzen joan ziren eta bozkario sentsazio batek ordezkatu zituen. Nire jokabidearen arazoa konponduta neukan. Handik aurrera, Hyde ezinezkoa zen. Une hartatik aurrera, nire izatearen alderik hoberenera zigortuta nengoen nahitaez, eta

zer-nolako poza eman zidan horixe pentsatzeak!
zer-nolako apaltasuna neronen bizitzaren mugak
besarkatu nituenean! Hainbeste alditan erabilitako
atea itxi eta giltza oinarekin zanpatu nuenean,
zeinen zinezkoa nire etsipena!

Biharamunean, hilketaren lekuko bat
zegoelako berria iritsi zitzaidan. Eta mundu
osoaren aurrean Hyde-ren errutasuna dudarik gabea
zela eta biktima itzal handikoa zela jakin nuen. Ez
zen hilketa soila izan. Zoraldi tragikoa ere izan zen.
Uste dut poza hartu nuela hura jakitean. Nire
bihotzean indarrak murriztu eta urkamendiarekiko
beldurra menperatzerakoan, uste dut poza hartu
nuela. Jekyll orain nire babestokia zen. Herriaren
aurrean une batez Hyde azalduko balitz, Londresko
herritar guztien eskuak haren aurka oldartu eta
hantxe bertan garbituko lukete.

Aurrerantzean egingo nuen bizitza berriari
esker, nire iragana berriro erostea erabaki nuen; eta
zintzotasun osoz esan ahal dut nire erabakiak uzta
ona eman zuela. Zuk oso ondo dakizu zeinen buru-
belarri aritu nintzen lanean iazko azken
hilabeteetan lagun hurkoen sufrimendua arintzeko;
badakizu lagun hurkoaren alde lan handia egin
nuela, eta orduan lasaitu egin nintzen. Zoriontsua
ere izan nintzela esango banu, ez dut uste okertuko
nintzatekeenik. Nire bizimodu xalo eta eskuzabal
hartaz nekatu nintzenik ere ez nuke esaterik izango;
alderantziz baizik. Izan ere, nik uste, egunetik
egunera gero eta poz handiagoa ateratzen nion

biziera berriari; nire barruko bikotasuna, ordea, pairatzen jarraitu nuen, eta lehendabiziko damu-bulkada desagertu bezain laster, nire nortasunaren alderik doilorrena —hain luzaro aske eta hain arestia kateatua— orroaka hasi zitzaidan baimen eske. Hyde-ren berpiztearekin ez nuen ametsik egiten baina. Ideia hutsak benetako ikara pizten zidan. Ez. Nire kontzientziarekin jolasteko tentaldia neronen baitan izan zen non sentitu bainuen, eta bekatari arrunt eta ezkutuaren parekoa izan zen tentaldiaren erasoei amore eman nien.

Gauza guztiek dute azken bat ordea. Neurririk zabalena ere bete egiten da eta amore labur horrek hain zuzen suntsitu zuen nire espirituaren oreka. Hala eta guztiz ere, ez nintzen asaldatu. Erorialdiari gauza normala iritzi nion, nire aurkikuntzaren aurreko denboretara itzultzea bailitzan. Urtarrilaren egun garbia, klarua zen. Izotza urtuta zegoen tokietan azpitik heze zegoela ikusten zen, zeruan hodeirik bat ere egon ez arren. Regent's Park neguko txori-txorrotxio baten pean murgildurik zegoen eta haizean udaberriko lurrinak zabukatzen ziren. Eserleku batean eseri nintzen, eguzkitan. Nire baitan dagoen animaliak nire oroimenaren hezurak hortzikatzen zituen, eta alde espiritualak —erdi lo, azken hau— penitentzia egiteko agintzen bazidan ere, zirudien ez zeukan hasteko adorerik. Azken buruan, esan nuen nire artean, besteak bezalako gizona nintzen, eta gero irri egin nuen nire lagun hurkoekin nire burua alderatzerakoan, eta Hyde-ren berekoikeria eta

krudeltasun alferrari nire jokabide zintzoa kontrajarri nion. Eta pentsamenduotaz harrotzen ari nintzen unean, ustekabeen zirgitaldi batek harrapatu ninduen eta goragale izugarriak sentitu nituen. Segituan, dardar bortitz batek hartu ninduen. Konortea galdu eta nire senera berriro etorri nintzenean, nire pentsamenduen kateari aldaketaren bat gertatua zitzaiola konturatu nintzen; ausartasun handiagoa sentitzen nuen; arriskuari destaina egiten nion eta edozein motatako betebeharrak errepresentatzen zuten lokarrien aurrean erdainari agertzen nintzen.

Behera begiratu nuen. Soin-atal kizkurren gainetik arropa erortzen zitzaidan itxuragabe, eta belaun gainean jarrita neukan eskua latza eta iletsua zen. Edward Hyde bihurturik nengoen berriro. Duela segundu gutxi arte gizartearen begiruneaz gozaten nintzen, aberatsa eta lagunak ederretsia nintzen, eta etxeko jangelan mahaia nire zain zegoen. Eta orain, bat-batean, gizakirik doilorrena nintzen; izaki iheslaria, etxerik gabea nintzen; hiltzaile ezaguna, urkamendiko gaizkilea nintzen.

Nire ezagumenak huts egin bazidan ere, ez ninduen erabat utzi. Behin baino gehiagotan ohartu naiz, ezen, nire bigarren nortasunaz jabetzen naizenean, nire ahalmenak zorrotzu egiten direla eta nire indarrek malgutasun handiagoa hartzen dutela; beraz, non Jekyll-ek ziuraski porrot egingo baitzukeen, Hyde-k ordea bazekien zori etsaiari eusten. Behar nuen nahasturaren osagaiak nire

kabineteko armairuetariko batean zeuden. Nolatan eskura nitzakeen? Eskuekin lokiak estaturik, konpondu beharreko arazoa horixe zela erabaki nuen. Laborategiko atea giltzaz itxita zegoen. Etxea zeharkatuz barrura sartzen saiatzekotan, nire morroitzak berak jarriko ninduke poliziaren eskuetan. Beste irtenbide bat bilatu behar nuen eta Lanyon-engan pentsatu nuen. Nola egin, ordea, berarekin harremanetan jartzeko? nola limurtuko nuke? Atxiloketari txiri egitea izango nukeela emanda ere, nolatan iritsi berarengana? Bestalde, bisitari ezezagun eta desatsegina nintzenez, nola konbentzituko nuke sendagile ospetsua bere kidearen langelan indarrez sar zedin? Ustekabean, nire aurreko nortasunetik ezaugarri bakarra geratzen zitzaidala konturatu nintzen: nire betiko idazkeraz idaztea baneukan. Eta ideia bikain horretan pentsatu ondoren, hartu beharreko bidea oso garbi azaldu zitzaidan hasieratik bertatik.

Ondorioz, jantzia gorputzera ahalik eta hobekien egokitu, gurdi bat geldiarazi eta gogoratu zitzaidan Portland-eko hotel baten helbidea eman nion gurtzainari. Gizarajoak ez zuen bere poza ezkutatzerik izan nire itxuraz ohartzekoan (jantziak estaltzen zuen tragedia gorabehera, txit barregarria zen eta), baina halako deabruzko harrese biziak hortzak erakutsi nizkionean, ezpainenatik irribarrea ezabatu zitzaion (haren zorionerako eta areago ninerako, aurrealdetik jaitziaraziko bainukeen zartako batez). Hotelean sartzekoan, hain begitarte zakarrez begiratu nuen

inguruan ezen enplegatuek dardara egin zuten. Nire aurrean ez zioten elkarri begiraturik egin; aitzitik, nire aginduei men egin zieten adeitasunez, gela pribatu batera gidatu ninduten eta idazteko tresneria ekarri zidaten. Hyde, arriskuari aurrez aurre eginik, kreatura berria zen niretzat. Neurrik gabe suminduz gero, hilketaren mugarainoko atezuek hartu eta kalte egiteko irrikek gaina hartzen zioten. Lehenengo eta behin, maltzurra zen. Borondatearen ahalegin handi batez bere sumindura menperatu eta bi mezu garrantzitsu idatzi zituen, bata Lanyon-entzat eta bestea Poole-rentzat; eta berak nahi zuen bezala igorriak izango zirelako ziurtasun oso-osoa edukitzearren, bi mezuok ziurtatzeko agindua eman zien otseinei. Une hartatik aurrera, sutondoan eserita eman zuen egun osoa, ezintasun hutsez hatzazkazalei horzka. Hantxe afaldu zuen, bere beldurrekin bakarka; parean zeukan zerbitzaria, berriz, dardarka hasten zen begiz jotzen zuen bakoitzean. Gaua heldu zenean, gurdi itxi baten bazterrean eseri eta hiriko kaleak iragan zituen. Eta hirugarren pertsona erabiliz hitz egiten dut, "ni" esaterik ez daukadalako. Ifernuko kreatura hark ez zeukan gizatasunik. Asmo beldurgarriak eta gorrotagarriak baizik ez zeuzkan.

Azkenik, gurtzaina susmatzen hasiko ez ote zen beldurrez, gurdia utzi eta ordu hartan zebiltzan gautxorien irrigarri bihurtuta, kaleetan oinez ibiltzen ausartu zen, arropak baldarki soinean zeramatzala. Bere grina gaiztoak barruan lehertu zitzaizkion ekaitz baten modura. Azkar zebilen,

beldurak jarraituko balio bezala, bere burarekin hizketan, kaleetatik ihesi, gauerdirako falta ziren minutuak zenbatuz. Emakume bat hurbildu zitzaion poxpolo kaxarik erosi nahi zion galdezka, baina zaplastada batez harengandik urundu eta hanka egin zuen.

Lanyon-en kabinetean neure benetako nortasuna berreskuratu nuenean, ni ikustean lagunak erakutsi zidan ikarak pitin bat hunkitu ninduela uste dut. Ez dakit. Edozein modutan ere, min hura tanta bat baino ez zen, ordu haiek izan ziren ikarazko itsasoaren erdian. Nire barruan, ordea, aldaketaren bat gertatua zen. Jadanik ez zen urkamendiarekiko beldurra oinazeztatzen ninduena, Hyde bihurtzeko bihotz ikara baizik. Lanyon-en hitz gaitzesgarriak ametsetan bezala entzun, etxera itzuli eta oheratu egin nintzen. Egun hartako bihotz ikararen ondoren, hain lo gozoan murgildu nintzen ezen gau osoan oinaze eman zidaten amesgaiztoek ere ez ninduten iratzarri. Biharamunean hunkituta eta ahulduta esnatu nintzen, atsedean hartuta baina. Nire baitan lotan zegoen basapiztia gorrotatzen eta neronen beldur izaten jarraitzen nuen; baina orain, behintzat, etxean nengoan, behar nuen nahasturatik hurbil, eta arriskuari ihes egitea lortu izateagatik sentitzen nuen esker onak halako indarrez dirdiratzen zuen nire espirituan, non, esperantzaren distirarekin norgehiagoka ari baitzen.

Patiotik lasai-lasai egurasten ari nintzen, gosalduek ondoren, aire hotzetik gozotasunez edaten,

itxuraldaketa iragartzen zuten sentsazio adierazgaitzek ustekabeen eraso zidatenean. Hyderen grinek nigan eragiten zituzten amorrua eta zorakeria nitaz jaun eta jabe izan baino lehen, nire kabinetera ozta-ozta iritsi ahal izan nintzen. Oraingoan, dosi bikoitza behar izan nuen nire nortasuna berreskuratzeko eta, ai ene!, sei ordu geroago, supazter aurrean eserita suari begira nengoela, itxuraldaketaren minak berriro sentitu eta edabea hartu behar izan nuen.

Hitz gutxitan, egun hartatik aurrera, gimnasiarekin bakarrik aldera litekeen ahalegin itzel baten bidez —eta edabearen berehalako eraginari esker— eutsi ahal izan nion Jekyll-en itxurari. Gaueko eta eguneko ordu guztietan, gaitz aurreko beldur horrek erasotzen zidan. Bereziki, lotan gelditzen banintzen edota nire besaulkian minutu batzuz lokuluska bat egiten banuen, Hyderen itxura pean esnatzen nintzen beti. Arrisku etengabe horrek nigan eragiten zuen atezuaren ondorioz (hala nola neure buruari ezarria nion lorik ezaren zigorra zela kausa), gizon batek jasan dezakeena azken muturreraino eramanda ere, sukarrak hartutako kreatura bihurtu nintzen, eta gorputzez eta arimaz erabat ahuldu. Eta orduan, pentsamendu bakarrak hartzen zidan gogo: nire beste ni-ak eragiten zidan bihotz-ikara. Lotan gelditu bezain laster edota drogaren eragina barreiatzen zen unean, berehalaxe jauzten nuen (itxuraldaketaren minak desagertzen baitzihoazen egun batetik bestera) irudi ikaragarritz jositako

amesgaizto baten hatzaparretara, arrazoirik gabeko gorrotoetan irakitan zegoen espiritura, eta bizi indar amorratu haiek jasateko bezain indartsua ez zirudien gorputzera.

Hyde-ren ahalmenek baziruditen Jekyll-en gaixotasunaren lepotik indartuta zeudela. Izan ere, bi nortasunak bereizten zituen gorrotoa berdintsua zen bi aldeetatik. Jekyll-en kasuan hil edo biziko sena zen. Kontzientziaren zenbait gorabeherekin erdibanatzen zuen kreaturaren itxuragabetasun osoa ikusita zeukala konturatu zen; areago, heriotza ere berarekin erdi bana hartuko zuen oinordetzan. Eta zoritxarraren alderik mingarriena berez osatzen zuten erkidetasun lokarri horietaz gain, Hyde jotzen zuen —beronen bizi kemena ikusita— deabruzko izakitzat ez ezik, baita izaki ezorganikotzat ere. Horixe zen izugarriena: hilobiko lokatza deiadarka eta txutxu-mutxuka ari zitzaion, gorpuzkiak keinuka ari zitzaizkion eta bekatu egiteko gauza ere baziren, hilik zegoenak eta itxurarik ez zeukanak bizi-bideak asmatzen zituen eta, batez ere, berari lotuta zegoen bihotz ikara matxinazale hura —bere emaztea izango bailitzan, bere begi berberak izango bailiran—. Bihotz ikara bere haragian kaiolaturik zeraman, eta bertatik entzuten zion erostaka eta birjaiotzeko ahaleginetan. Gaez, lo egin ezinez egon behar zuenean, gaina hartzen zion eta bizi gabe uzten zuen. Hide-k sentitzen zuen Jekyll-ekiko gorrotoa eite desberdinekoa zen. Urkamendiak eragiten zion bihotz-ikara behin eta berriro bultzatzen zuen bere burua hiltzera eta

bestearen baldintzarik gabeko menpeko zatikia berriz ere izatera (pertsionara itzultzerik ez zegoenez gero). Beharkizun honi, ordea, gorroto zion; Jekyll murgilduta zegoen etsipenari gorroto zion, eta besteak atsekabez beteta begiratzen zionez, minduta zegoen. Horregatik, zapokeria gaiztoak egiten zizkidan. Esate baterako, gehien maite nituen liburuetan hitz gorriak idazten zituen nire eskuz; nire aitaren eskutitzei su ematen zien; behinola, nire aitaren erretratua ere suntsitu zuen. Heriotzari zion bihotz ikaragatik izan ez balitz, bere hondamena bilatuko zukeen neu ere bertara arrastatzeko. Biziari dion maitasuna, ordea, benetan harrigarria da. Honako hau baino ez dut esango: Hyde-rengan pentsatzeak gaixotu eta ikara batean jartzen banau ere, biziari zor dion maitasunaren grinaz eta doilorkeriaz oroitzen naizenean, suizidioaren bidez bera ere hiltzeko daukadan ahalmenak zer-nolako beldurra sartzan dion konturatzen naizenean, bihotz-bihotzez errukitzen naiz berataz.

Alferrikako gauza izango litzateke kontaketa hau luzatzea. Gainera, horrela egiteko astia ere ez dut. Halako oinazeak orain artean inork jasan ez dituela besterik ez dut esango, eta nahikoa da horrekin. Hala ere, sufritzeko ohiturak ekarri dit —atseden pittin bat ez ezik— espirituaren gogortzea ere bai, etsipenarekiko onespén jakina alegia.

Eta, azkenik, nire aurpegia eta izaera erantzi dizkidan ezbeharragatik —gainera etorri zaidan azkenekoagatik— izan ez balitz, nire zigorra urte luzeetan luzatuko zatekeen. Nire gatz-hornidura —esperimentuaren egunetik berriturik ez nuenez— amaitzen hasi zen. Beraz, beste sorta bat eskatu eta nahastura prestatu nuen. Irakidura gertatu zen, baita lehendabiziko kolore aldaketa ere; bigarrena ez ordea. Isurkia edan eta ez zuen eraginik izan. Londres osoan zehar gatz horien bila zeinen larri ibili naizen jakingo duzu Poole-ren bitartez. Alferrik izan da. Azkenik, lehen gatz sorta hura purua ez zelako uste bete-betean nago, eta ezpurutasun horixe izan zen, hain zuzen, edabearen eraginkortasuna gauzatu bide zuena.

Gutxi gora-behera astebete iragan da, eta aitorpen honi amaiera emango diot jatorrizko gatzetatik ateratako azken dosiaren eraginpean. Miraririk gertatu ezik, hauxe izango da Henry Jekyll-ek bere pentsamenduak adierazi eta bere aurpegia (hain tristekiro aldatua) ispiluan islaturik ikusiko duen azken aldia. Idazki honi azkena emateko denbora ez dut gehiegi atzeratu nahi, zeren-eta orain arte hitzok suntsipenari ihes egitea lortu badute, arretaren eta zoriaren arteko konbinaketari esker izan baita. Itxuraldaketa hilzoriak eraso egingo balitz honako hau idazten ari naizen unean, Hyde-k zati-zati egingo luke; azkena emango diodan unetik itxuraldaketa gertatu arte denbora pitin bat iragan dadila lortzen badut, ordea, Hyde-ren berekoikeria harrigarriak eta orainaldian

bakarrik bizi izateko daukan gaitasunak salbatuko dute agiri hau apika bere tximino antzeko gogo gaiztotik. Ordu erdi barru, nortasun gorrotagarri hori sekulako neretzen dudanean, badakit dardarka eta negarrez nire aulkian eserita iraungo dudala; edota nire azken babestoki lurterra izan den gela honetan gora eta behera ibiltzen jarraituko dut, atezuek eta beldur zorabioek hartuta, edozein soinu mehatxugarriren zelatan. Hilko ote da Hyde urkamendian? Bere burutik ongi ateratzeko adore nahikoa kausituko ote du azken momentuan? Hori ez daki inork, Jainkoak izan ezik. Niri ez zait axolarik. Hauxe da, egiatan, nire hil-ordua, eta hemendik aurrera gerta daitekeena ez doakit niri, beste bati baizik. Beraz, mahai gainean idazluma uzterakoan eta aitorten hau zigilatzerakoan, hain zorigaiztokoa izan den Henry Jekyll-en biziari emango diot azkena.

AMAIERA

AURKIBIDEA

Ataren istorioa	2
Hyde Jn.aren bila	14
Jekyll Dk. lasai zegoen	29
Carew-en hilketaren kontua	34
Eskutitzaren gertaera	42
Lanyon doktorearen abentura harrigarria	52
Leihoaren gertaera	59
Azken gaua	62
Lanyon doktorearen kontaketa	86
Gertatutakoa adierazten du Henry Jekyll-ek	99